




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Zuzenbide Gradua

Euskal Herriko Unibertsitatea

“GENERO INDARKERIA ETA BIRBIKTIMIZAZIO JUDIZIALA ESPAINIAKO ORDENAMENDUAN”

GRADU AMAIERAKO LANA

**Egilea: Ainara Gutierrez Mendizabal**

**Tutorea: Jokin Alberdi Bidaguren**

**Ikasturtea: 2022/2023**

## LABURPENA:

Genero-indarkeria ez da salaketa ezartzen denean amaitzen, askotan birbiktimizazio izeneko biktimizazio prozesu berri bat hasten dute biktimek eta zehazki eragile juridikoekin duten harremanaren ondorioz «biktimizazio judiziala» izenekoan zehazten den fenomenoaren ematen da. Biktimizazio-modu horrek biktimaren egoera nabarmen ahultzen du, kalte psikologikoak eraginez eta ondorioz, sistema juridiko penala etsaitasunez hautematen du. Egindako ikerketaren arabera, «birbiktimizazioa» eta «biktimizazio judiziala» kasuak genero indarkerian isolatuak ez diren gertakizunak direla ondorioztatu daitezke. Hala eta guztiz ere ondorioztatu dugu, biktimizazio-modu horren agerpena edo azentuazioa eragiten duten inguruabar zehatz batzuk daudela eta horiek saihestu daitezkeela neurri ezberdinen bitartez.

**Hitz gakoak:** Birbiktimizazioa, biktimizazioa, indarkeria, generoa

## RESUMEN:

La violencia de género no termina con la interposición de la denuncia, muchas veces las víctimas inician un nuevo proceso de victimización denominado revictimización y se produce un fenómeno que se concreta en la "victimización judicial" como consecuencia de su relación con operadores jurídicos. Esta forma de victimización debilita notablemente la situación de la víctima, causando daños psicológicos y, en consecuencia, una percepción hostil del sistema jurídico penal. El estudio realizado concluye que los casos de "revictimización" y "victimización judicial" son hechos no aislados en la violencia de género. No obstante, hemos llegado a la conclusión de que existen determinadas circunstancias que provocan la aparición o acentuación de esta forma de victimización y que pueden evitarse a través de diferentes medidas.

**Palabras claves:** Revictimización, victimización, violencia, género.

## ABSTRACT:

Gender-based violence does not end with the filing of a complaint, often victims initiate a new process of victimization called re-victimization and a phenomenon occurs that is

concretized in "judicial victimization" as a result of their relationship with legal operators. This form of victimization significantly weakens the victim's situation, causing psychological harm and, consequently, a hostile perception of the criminal justice system. The study concludes that cases of "re-victimization" and "judicial victimization" are not isolated in gender-based violence. However, we have come to the conclusion that there are certain circumstances that cause the appearance or accentuation of this form of victimization and that can be avoided through different measures

**Keywords:** revictimization, victimization, violence, gender

<b>I. SARRERA:</b> .....	<b>4</b>
A. AUZIAREN EGOERA.....	4
B. LANAREN HELBURUA.....	5
C. METODOLOGIA.....	5
<b>II. BIKTIMA:</b> .....	<b>6</b>
A. BIKTIMA OROKORREAN.....	6
1. Kontzeptua.....	6
2. Biktimaren irudiaren ikuspegia historian zehar.....	8
3. Espainiako legearen bilakaera biktimari dagokionez.....	11
<b>B. BIKTIMA ZAURGARRIA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA:</b> .....	<b>13</b>
1. Kontzeptua.....	13
2. Motak.....	14
<b>III. BIKTIMIZAZIOA: GENERO INDARKERIAREN BIRBIKTIMIZAZIOA ETA BIKTIMIZAZIO JUDIZIALA ESPAINIAKO KASUAN:</b> .....	<b>16</b>
A. BIKTIMIZAZIOA KONTZEPTUA ETA MOTAK.....	16
B. DATU ESTADISTIKOAK GENERO INDARKERIA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARI DAGOKIONEZ.....	19
C. BIRBIKTIMIZAZIOA ETA GENERO INDARKERIA.....	20
D. BIKTIMIZAZIO JUDIZIALA ETA GENERO INDARKERIA.....	21
1. Prozesuari buruzko informazio eta ulermen eza.....	21
2. Eragile juridikoen jardun profesional desegokia.....	23
3. Atzerapen prozesalak.....	24
4. Eragile juridikoen prestakuntza espezializaturik eza.....	25
<b>IV. GENERO INDARKERIAREN LEGEDI NAGUSIAREN AZTERKETA:</b> .....	<b>27</b>
A. NAZIOARTE MAILAN.....	27
C. EUROPA MAILAN.....	30
1. Europako Kontseilua: Istanbulgo hitzarmena.....	30
2. Europar Batasuna.....	32
D. ESPAINIA MAILAN.....	34
1. Espainiako Konstituzioa.....	35
2. 1/2004KO Lege Organikoa.....	37
3. 10/2022 Lege Organikoa.....	40
E. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MAILAN: EA Eren ADIBIDEA.....	44
<b>V. KANPO LANA : GENERO INDARKERIAREN OFIZIOZKO ABOKATUARI EGINDAKO ELKARRIZKETA:</b> .....	<b>46</b>
<b>VI. ONDORIOAK:</b> .....	<b>49</b>
<b>VII. BIBLIOGRAFIA:</b> .....	<b>52</b>

## I. SARRERA:

### A. AUZIAREN EGOERA

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna betidanik egon da, garai, herri eta zibilizazio guztietan. Gizartearen izaera patriarkalak legitimatu egin du gizonen eta emakumeen esleitutako rolen arteko bereizketa, haien artean esparru publikoa gordez eta emakumea arlo pribatura baztertzuz. Gai garrantzitsuak eta erabakitze boterea beti egon dira gizonen esku, eta emakumeen etxeko kontuak baino ez zaizkio utzi, gizonen mende, ez soilik gizartearen begira, baita eremu pribatuan eta familia-eremuan ere (Martin Sanchez, 2015).

Emakumeen aurkako indarkeria munduan emakumeek bizi duten desberdintasunaren eta mendekotasunaren muturreko adierazpena da. Kriminalitate mota hau gizarte demokratiko bat garatzeko oztopoa da, Espainiako Konstituzioan jasotako oinarriko eskubideak urratzen dituelako, hala nola bizitza, askatasuna, segurtasuna, berdintasuna eta diskriminazio eza (Pérez Camarero, 2019).

Espainiar Estatuan, Genero Indarkeriaren aurkako babes integrala emateko neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren zioen azalpenaren adierazten denez, genero indarkeria ez da eremu pribatuari eragiten dion arazoa, hau da, fenomeno estruktural eta globalizatua da. Gainera, ez da estatu baten delitu-fenomeno eskusiboa bat, baizik eta arlo honetan eskumena duten nazioarteko erakundearen erreakzioa eragin duen esparru orokorreko arazo bat da. Nahiz eta azken urteetan, egoeraren kontzientziak handiago bati esker, aurrerapen handiak lortu diren gaitz sozial honi dagokionez, nahikoa da eguneroko berriak ezagutzea, genero indarkeria gure artean dagoela eta gizartearen nabarmen kezkatzen jarraitzen duela konturatzeko.

Kontuan izan behar da, genero indarkeria ez dela erasotzailearen salaketarekin amaitzen. Une horretatik aurrera, eta sistema juridiko-penalarekin duten harremanaren ondorioz, biktimek askotan biktimizazio-prozesu berri bat bizi dute, *“bigarren mailako biktimizazioa”* izenekoa, eta biktimek eragile juridikoekin duen elkarreragin berezian *“biktimizazio judiziala”* deritzona gertatzen da. Biktimizazio-modu horrek nabarmen handitzen ditu biktima batek jasaten dituen kalteak, sistema judiziala eta eragile

juridikoen jarduera etsaitasunez hautematen baititu, eta horrek areagotu egiten du haren segurtasun eza eta babesgabatasunaren sentiazioa, eta, aldi berean, pairamen psikologiko eta emozional larriak eragiten dizkio. Beraz, ezin daiteke ahaztu, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eta haien seme-alabek laguntza eta protekzio berezia behar dutela sarritan, bigarren mailako biktimizazioa edo biktimizazio errepikatua izateko arrisku handiagatik (Rodriguez Gonzalez,2021).

Hori dela eta, beharrezkoa da sistema judizialarekiko elkarrekintzak sortzen duen biktimizazioari buruzko gogoeta egitea, hura eragiten duten inguruabarrak agerian uzteko eta kalteak murriztuko duten jardunbide egokietan sakontzeko helburu nagusiarekin. Gainera sexu-askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoaren eztabaidan proposatzen ari diren lege-aldaketan aurrean, sexu erasoa jasan duten emakumeen biktimizazioa saihesteko proposatzen diren berrikuntzetan sakondu nahi dugu, bereziki biktimizazio judizialari dagokionez hartzen diren neurriak azpimarratuz.

## B. LANAREN HELBURUA

Lanaren helburu nagusia genero indarkeriaren biktimek salaketaren ondoren jasaten duten bigarren mailako biktimizazioan sakontzea izango da.

Helburu zehatzei dagokionez, lehenengoa, biktimaren irudi orokor bat izatea izango da eta ondoren zehazki genero indarkeriaren biktimarena eta bigarrena, gaur egun emakume hauek babesten duten estaldura juridikoa aztertzea eta honek dituen indargune eta hutsuneak ikustea izango da helburu.

## C. METODOLOGIA

Lana aurrera eramateko, iturri bibliografiko ugari berrikusi eta alderatu dira.

Gaiari buruzko informazio egiazkoa eta ikuspegi zabala eta osoa lortzeko helburuarekin, paperezko liburuak, bertsio digitala, aldizkari juridiko eta zientifikoetako artikulak, dokumentu akademikoak eta gaian adituak diren hainbat egileen lanak kontsultatu dira.

Legea ere ezinbestekoa izan da, bereziki Espainiako Konstituzioa, Biktimen Estatutua, hainbat Lege Organiko, azpimarratuz 1/2004 koa eta 10/2022 koa, eta Nazioarteko eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau , itun eta hitzarmen.

Lana lau zatitan egituratu da. Lehenengo zatian kontzeptu desberdinak aztertuko dira biktimaren irudiaren barnean. Honen definizio, inpaktua eta historian zehar izan duen bilakaera aztertuz. Atal berean arreta jarriko da genero indarkeriaren kontzeptuan eta dauden indarkeria mota desberdinak ikertuko dira.

Bigarrenean, birbiktimizazioaren gaiari helduko zaio, hura eragiten duten faktoreak ikertuz. Ondoren, genero indarkeriari buruz maila desberdinean dagoen araudi nagusienari buruz hausnartuko da, birbiktimizazio inguruan dituzten indarguneak eta hutsuneak azpimarratuz. Azkenik, ikusitakoa ofiziozko abokatu baten esperientziarekin alderatuko da eta azken ondorioak emango dira.

## II. BIKTIMA

Funtsezkoa da gure ikerketaren helburua kontuan izanda, arreta biktimaren irudian jartzea. Problematika horretan sakontzeko asmoz, atal honetan, hasteko, biktimaren kontzeptu orokorrean eta historian zehar izan duen ibilbidea aztertuko dugu eta ondoren genero indarkeriaren biktiman ezarriko dugu arreta.

### A. BIKTIMA OROKORREAN

#### 1. Kontzeptua

Atal Hau garatzeko kontuan izango 2014.urtean Morillas, Patrok eta Aguilarrek egindako biktimologiari buruz egindako ikerketa.

Biktimaren terminoa antzinatek erabilia izan da, hala, Hammurabiko kodean (1728-1686 A. C.) agertzen dira kontzeptu honen adierazpenak. Biktimari buruzko erreferentzia historiko asko daude, nahiz eta beti bigarren maila batean egon diren, arreta delitugilean ezarriz, ondoren ikusiko dugun bezala. Ildo horretan, egile

desberdinek egindako ekarpenak nabarmentzen dira. Adibidez, ikerketaren egileek, honako hauek azpimarratu zituzten: Ferri, kaltea konpontzen laguntzeko beharra planteatzen zuena, Garófalo, delituaren biktimentzako kalte-ordainaren ideia babesten zuena; eta, geroago, 1941ean, Von Hentigek, delituaren biktimaren ikuskera dinamiko eta elkarreragilea defendatzen zuena, ulertzen baitzuen biktima ez dela delituaren sorreran objektu edo elementu pasibo bat, baizik eta kriminalizazio-prozesuan, jatorrian eta egitate kriminalaren betearazpenean ekarpen erabakigarria egiten duen subjektu aktibo bat.

Modu bateratuan definitu ahal izateko parametro komun batzuk aurkitzea oso zeregin konplexua da, eta ikuspegi plurala hautatu behar da; hau da, ez da nahikoa ikuspegi bateratu bat, baizik eta zenbait ideia uztartu behar dira, biktimaren kontzeptu generikora hurbiltzeko. Hasteko, esan daiteke kontzeptuzko dikotomia bat dagoela hura definitzerakoan. Biktima terminoaren inguruan hainbat posizio daude, bakoitzak interesa pizten duen adar juridiko edo sozialaren arabera babes jakin bat emateko joera duena. Horrela, onartutako esanahi biktimologikoaren arabera, definizio historikoak eta sozialak aurki daitezke, edo, aitzitik, ikuspegi juridiko batean interes handiagoa badu, alde batetik, delitu gisa tipifikatuta dagoen jokabide erasotzailea erabili ahal izango da, edo, bestetik, ikuspegi zabalago baten alde egin ahal izango da, non ez den beharrezkoa egitate ez-zilegia delitua izatea.

Eduki etimologikoari dagokionez, biktima terminoa latinezko “víctima”tik dator, zeinak hildako pertsona edo animalari erreferentzia egiten zion. Kontzeptu hori eboluzionatuz joan da denborak aurrera egin ahala, gaur egun emandako esanahiarekin bat datozen beste kontzeptualizazio batzuk eratu arte.

Gramatikari dagokionez, RAEk definizio anitzak ematen ditu biktimaren kontzeptuari buruz, baina gure lanari gehien hurbiltzen zaiona honako hau da: biktima: *delitu baten ondorio negatiboak jasaten dituena*. Hala ere, ikuspegi juridikotik begiratuta, biktima-nozio hori oso murriztailea da; izan ere, badirudi biktima-izaera legeak delitu gisa tipifikatutako jokabide batera mugatzen dela. Hori da, hain zuzen ere, doktrina klasikoak aurre egin behar izan dion arazo nagusia, egile batzuen eta besteen artean desadostasun ugari sortu baititu.



Doktrinari erreferentzia eginez, biktimaren hasierako kontzeptua, Mendelsohnek, kriminalak eta biktimak osatutako “bikote penala” deitzen dion horretan sortzen da. Horrela, biktimaren kontzeptuak, besteak beste, V. Hentig (1941) eta Paaschek (1967) adierazten duten bezala, ondasun juridikoen lesio objektibo baten aurrean subjektiboki ondoeza edo mina duten pertsoneri egiten die erreferentzia. Definizio horri egotz dakioken arazo nagusia da pertsona juridikoak, erakundeak edo estatua, biktimaren kontzeptutik kanpo uzten dituela.

Horrela, erabili izan diren kontzeptu penalen aurrean, biktimologiarentzat pertsona batek bere eskubideetan jasaten duen edozein afekzioarekin identifikatzen da, eta definizio hori ez dator bat zuzenbide penalararekin; adibidez, biktimologiarentzat lekukoa, bere funtzioan babesik gabe dagoen heinean, edo delitugilea bera, bere eskubideak ukatzen zaizkion neurrian, biktima ere izan daitezke, nahiz eta zuzenbide penalak halakotzat jaso ez.

Azaldutako guztiarekin bat etorriz, ikusten da biktima terminoak hainbat adiera har ditzakeela. Beraz, behin baino gehiagotan aipatu den bezala, ez dago biktimaren kontzeptu bateraturik, eta haren definizioa, nolahi ere, garatu nahi duen arlo edo adar juridiko edo sozialaren arabera izango da.

## 2. Biktimaren irudiaren ikuspegia historian zehar

Zigor-arloko prozesuan, biktimari ez zaio beti tratatu bera eman eta zigor zuzenbidearekin izan duen harremana ez da erraza izan, egoera pribilegiatu batetik oso ahaztua izatera igaro zen, zuzenbidearen aldetik ez ezik, kriminologia eta politika kriminalaren aldetik ere (Muñoz Conde eta García Arán, 1996). XX.mendearen amaieran azaldu zen biktima babesteko beharra defendatzen zuen mugimendua, izan ere, delituaren biktima babesaren arloan aurrera egitea ezinbestekoa zen, hori dela eta, lege aurrerapenek haien egoera eta zeregina birformulatzea ekarri zuten. (Demetrio Crespo, 2016)

Hasiera batean, zigor zuzenbidearen sorreraren, Schaferrek (1962) sortutako terminoaren garaia izan zen, “biktimaren urrezko aroa” izenez ezagutzen zena. Garai horretan, biktimak mendekua hartzeko ahalmen osoa zuen eta gatazka penalaren

protagonistatzat hartzen zen izaera pribatuko justizia-sistema baten barruan. (De Arce, 2020)

Sistema horren ondorioz, zigorra mendeku pribatu bat zen, biktimak edo haren gertuko senideek arau-hausleari ezartzen eta exekutatzen ziotena, komunitatearen esku-hartzerik gabe. Laster hasi zen paper hori mugatzeko beharra agertzen, askotan biktimaren erantzuna neurrigabea izaten baitzen. Arazo hori konpontzeko, Talioaren Legea ezarri zen, eragindako kaltearen eta hari ezarritako zigorraren arteko proportzionaltasuna eskatzen zuena. Ondoren, zigor zuzenbidea zuzenbide publiko izatera igaro zenean, Estatuak hartu zuen zigor zuzenbidearen monopolioa eta egoera horren eraginez, legez kontrako gertakarien ondorioz kaltetuak eginkizun sinboliko eta marjinala baina ez zuen izan hainbat hamarkadetan zehar. Biktimaren irudia bigarren maila batera igarotzearen arrazoia, batez ere, zigor zuzenbidearen paradigmaren azterlanaren xede nagusia delitugilearengana bideratuta egon delako izan da, helburu nagusia zigortzea izanik (Orts Berenguer eta González Cussac, 2016).

50eko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerratik aurrera, biktimen egoera aldatzen hasi zen. Biktimaren azterketa merezi zuen interesa berreskuratzen hasi, eta horri buruzko ezagutza zientifikoak areagotu egin ziren, bai lege-sistemaren aldetik, bai kriminologiaren, politika kriminalaren eta psikologia sozialaren aldetik.

García-Pablosek (2014) adierazi zuen bezala interes hau berpiztu zela hainbat faktoreek erakutsi zuten:

Lehen faktorea diziplina zientifiko berri bat garatzea izan zen, biktimologia, delituaren biktima eta haren inguruko inguruabarrak aztergai dituen. Terminoaren hurbilketarik goiztiarrena, nazien garaian kanporatu eta Estatu Batuetan bizi zen Hans Von Hentig alemaniarra eman zuen, zeinak biktimaren kontzepzio interakzionistaren alde egin eta biktimogenesi terminoa erabili zuen. Hala ere, biktimologiaren aitatasuna, aurretik aipatutako, Beniamin Mendelsohn israeldarrari lotzen zaio, gai horretako klasiko baten egilez gain, lehen aldiz biktimologia terminoa Konferentzia batean erabili izana egotzen zaio. Biktimologiari buruzko Nazioarteko I. Sinposioarekin hasi zen zientzia hori behin betiko finkatzen, eta, horren ondorioz, herrialde batzuk beren legerian delituaren biktimei laguntzeko eta konpentsatzeko programak sartzen hasi ziren.

Biktimaren berraurkikuntza hori azaltzeko kontuan hartu beharreko bigarren faktorea Gizarte Psikologiaren aurrerapen handia izan zen, biktimologia-ikerketetatik eratorritako datuak aztertzeko eta interpretatzeko eredu teorikoak garatzeari esker, ordura arte ez baitzuen izan erreferentzia-esparrurik. Hainbat teoria sortu ziren, hala nola berdintasunarena, Adamsena; mundu zuzenarena, Lernerrena; esleipenarena, Kelleyrena; edo ikasitako babesgabetasunarena, Seligmanena. Une horretatik aurrera, agerian geratzen da delituaren biktimak gertakari kriminalean betetzen duen benetako funtzioa zientifikoki egiaztatzeko beharra, ohiko kriminologiak markatutakoa baino askoz ere esparru zabalagoan.

Garcia-Pablosek (2014) adierazi zuen bezala, 70eko hamarkadan zehar, gizarte-psikologoek hainbat ikerketa egin zituzten delituaren biktimizekiko portaerei buruz, eta horiek izugarri harritu zuten iritzi publikoa, indarkeriazko delituen lekukoek agerian utzi zituztelako biktimari abandonua emateko edo ez laguntzeko jokabideak, erreakzio pasiboak eta elkartasunik gabekoak, etab

Era berean, mugimendu feministak erabakigarriak izan ziren emakumearen aurka berariaz bideratutako indarkeriari arreta emateko: sexu-biktimizazioa, indarkeria fisikoa, etab. Horiek guztiek laguntza-programak eta ikerketa teorikoak egiteko bultzada handia ekarri zuten, eta, aldi berean, biktimizazio-arrisku handia zuten beste kolektibo batzuentzat eredu izan ziren.(De Arce, 2020)

Mugimendu biktimologikoak biktimaren estatusaren birdefinizio globala proposatzen du, eta horretarako kontuan hartu behar dira delitugilearekin, lege-sistemearekin, gizartearekin, ekintza politikoarekin, botere publikoekin, etab duen harremana. Sistema judiziala Zuzenbideko Estatu Sozial eta demokratikoaren printzipioetara egokitu dadin, ezinbestekoa da irizpide biktimologikoak kontuan hartzea bere prozesu penaletan. Ikerketa zientifikoek erakusten dute biktimaren eskakizun eta nahi nagusia justizia egotea dela eta horretarako prozesuak biktimen benetako eta bidezko interesei ere erantzun behar die, hala nola laguntza-zerbitzuak, segurtasun pertsonaleko neurriak, ondarea babesteko neurriak eta abar jasotzeko duten eskubideari.

Ondoriozta dezakegu biktimologiak proposatutako biktimaren eta justiziaren arteko harreman-eredu berriaren ondorioz prozesu penala berritu izanak bi helburu dituela.

Alde batetik, biktimari parte-hartze aktiboa eman behar zaiola justizia-administrazioan, bere eskubideak eta interesak aseko dituen sistema baten barruan. Eta, bestetik, biktimen babes indartu behar dela, bigarren mailako biktimizazio-arriskua areagotu ez dadin, laguntza-zerbitzuen bidez, haien benetako beharrak azpimarratuz, laguntza material zein psikologikoarekin.

### 3. Espainiako legearen bilakaera biktimari dagokionez

Legediari dagokionez denboran zehar biktimei babes eta eskubide gehiago bermatu zaizkie. 1978ko Espainiako Konstituzioak, biktimei bereziki aplikagarriak zaizkien konstituzio eskubide batzuk jasotzen ditu. Eskubide horiek bi kategoriatan banatu daitezke: biktimen oinarrizko eskubide ez prozesalak eta biktimen oinarrizko eskubide prozesalak. Ondoren Gomez Colmenerrek (2015) egindako legeen bilakaera aztertuko dugu.

Alde batetik, biktimen oinarrizko eskubide ez-prozesalak honako hauek dira: duintasunerako eskubidea (EK 10.1 Artikulua), osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15.artikulua), ohorerako eskubidea (18.1 artikulua) eta norberaren irudirako eskubidea (18.artikulua).

Bestetik, biktimen prozesu-eskubideei buruz hitz egiteko, lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu babes judizial eragingarria izateko eskubidea (24.artikulua) zeinak beste eskubide batzuk biltzen dituen: alderdi prozesala izateko eskubidea ( 24 eta 125.artikulua), haren eskubideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea( 24.artikulua), abokatu eta prokuradorea doan izateko eskubidea ( 24.2 eta 119.artikulua), entzuna izateko eskubidea (24.1 eta 24.2 artikulua), ordaina jasotzeko eskubidea (kalte-ordain bidez, itzulketa bidez edo justizia errestitiboko erakundeen bidez) eta laguntza jasotzeko eskubidea (24.artikulua).

Beste alde, bigarren sailkapen horri jarraituz, honako eskubide hauek daude: berdintasunerako eskubidea (14.artikulua), frogarako eskubidea (24.2 artikulua) eta datuak babesteko eskubidea (18.4 artikulua) .

Beraz, ikus dezakegu lehen sailkapenak aipatzen dituen eskubideak (prozesukoak ez direnak) biktimak pertsona izateagatik dituenak direla, hau da, prozesuan errespetatu behar diren oinarrizko eskubideak.

Konstituzioan agertzen diren artikulua hauek, biktimaren aldeko oinarrizko eskubideen oinarri garrantzitsu bat da, hauetan urraketa bat izanez gero, biktimari babes konstituzionala eskatzeko aukera ematen diolako. Hala ere, eskubide horiek, babesa ahalbidetzen badute ere, oinarrizkoak eta oso zabalak dira, eta beraz, ez dute biktima bere osotasunean babesten. Hau da, nahikoa ez den eta osatu gabe dagoen biktimaren aldeko eskubideen zerrenda da.

1995 urtera arte ez zen izan Espainian legedirik biktimei babes osoa ematen zietena. Horrenbestez, 1995ko abenduan, Indarkeriazko delituen eta Sexu askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko legea onartu zen. Lege horrek, alde batetik, indarkeriazko delituen biktimei ematen zaizkien laguntza ekonomikoa arautzen ditu (I.kapitulua), eta bestetik tipo guztien delituen biktimei ematen zaie laguntza (II.kapitulua). 35/1995 Legean nabarmentzekoa da Biktimei Laguntzeko bulegoak sortu zirela, bulego horiek lurralde nazional osoan ezarriz, Justizia eta Barne ministerioaren ekimenez.

Horren ondoren, Doako laguntza juridikoari buruzko 1/1996 legea onartu zen. Lege horren lehenengo artikuluan ezartzen denez, konstituzioaren 119.artikuluan aipatzen den doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea eta eraginkorra izateko prozedura arautzea da xedea. Beraz, biktima babesteko modu bat da, biktima eta kaltetuari doako laguntza juridikoa izateko aukera eskaintzen baitu.

2001.urtean Justizia Erreformatzeko Estatu ituna egin zen. Garrantzitsua izan zen, izan ere, 17.atalean, Prozedura Kriminalaren Lege berri bat egitea aurreikusi zuen, besteak beste, indarkeriazko delituen biktimen babesa eta defentsa indartzeko helburua zuena. Horrez gain, 13. apartatuan herritarrek justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna ezarri zen, eta horren 22 tik 25 apartatuaren bitartean, delituen biktimak babesteari buruzko hainbat agindu ezarri ziren (informatua izateko eskubidea, epaitegi edo auzitegi batean agertzen denean haien duintasuna eta intimitatea errespetatzeko eskubidea, epaitegiek eta auzitegiek babesteko eskubidea eta nahi ez den publizitatearen aurrean babestua izateko eskubidea)

Ordutik aurrera, zenbait arau onartzen hasi ziren, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira: uztailaren 31ko 27/2003 Legea, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena eta abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko neurriei buruzkoa, biktimei laguntza eta arreta emateari buruzko alderdiak biltzen dituena; familia-eremuko arau zibilaria buruzko alderdiak, indarkeriaren barruan eta zigor erantzunarekin lotutako alderdiak.

Beraz, asko izan dira delituaren biktimaren aldeko aginduak Konstituzioaren ondoren. Hala ere, apirilaren 27ko 4/2015 legea arte, biktimen eskubide prozesal eta ez prozesal guztiak testu bakar batean ez zeuden bilduta. Biktimaren Estatutua aurrerapauso handia izan da biktimaren babesari dagokionez. Horrek, behar bereziak dituzten eta kalte beratasun berezia duten biktimen arloko araudi bereziekin batera, oso zeregin garrantzitsua du gaur egun babes efektiboa emateari dagokionez. Azkenik, 10/2022ko Lege Organikoa “sexu-askatasunaren berme integralari” buruzkoa aipatu behar da, zeinak ondoren ikusiko dugun bezala, helburua izan du sexu askatasunean urrapena izan duten biktimen babesa indartzea.

## B. BIKTIMA ZAURGARRIA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

Atal honetan, genero indarkeriaren biktiman ezarriko dugu arreta. Horretarako genero indarkeria zer den aztertuko dugu autore desberdinen arabera eta ondoren indarkeria mota desberdinak.

### 1. Kontzeptua

Indarkeria-mota hau ez da gertatzen gizarte, muga, talde etniko, adin eta erlijio jakin batzuetan. Aurretik aipatu dugun bezala, arazo global bat da, gizarte patriarkalaren sorreratik existitzen dena.

Kontzeptu hau hainbat legetan definiturik agertzen da, bai estatu mailan eta bai nazioarte mailan eta definizio ugari dituen kontzeptua da. Hala ere, guztiek dute alderdi komun bat: gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna, botere-harreman desberdinen ondorioz.

Atal honetan beharrezkoa ikusten dut autore desberdinek kontzeptu honi buruz ematen duten definizioak islatzea, kontuan izanda ez dagoela genero-indarkeriari buruzko kontzeptu bateratu eta argirik aurkitzen. Definizio zabalduenaren arabera, genero-indarkeria emakume izate hutsagatik emakume baten aurka zuzendutako indarkeria da ( Poggi, 2019). Rodriguez Oterok (2013) honako autore hauek nabarmentzen ditu:

Fernández-Alonsok (2003) adierazi duenez, genero indarkeria emakumeen aurkako indarkeria espezifikoki egiten dio erreferentzia, eta diskriminazioa, desberdintasuna eta gizonek emakumeekiko dituzten botere-harremanak mantentzeko tresna gisa erabiltzen da. Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa barne hartzen ditu, mehatxuak, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa barne, bizitza publikoan edo pribatuan gertatzen dena, eta horren arrisku-faktore nagusia emakume izatea da. Beste alde, Mirat eta Armendárizek (2006) emakume batek genero femeninoa izateagatik jasandako edozein indarkeria-ekintza gisa identifikatzen dute, baldin eta ondorio gisa kalte fisiko, sexual edo psikologikoa badu edo izan badezake, eta barne hartzen ditu hilketak, lesioak, mehatxuak, derrigortzeak, askatasuna arbitrarioki kentzea, askatasun sexuala eta tratu laidogarriak, bai bizitza publikoan, bai pribatuan Azkenik, Morenok (2008) honela definitzen du: gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria, patriarkatuaren edo matxismoaren ideologian oinarrituta.

## 2. Motak

2004ko Lege Integralean barneratzen diren indarkeria motak mugatuak dira, nazioarteko zuzenbidearekin alderatuz eta murriztapen honek gatazkak sortu ditu. Honako hauek dira gure barne legedian agertzen diren lau indarkeria desberdinak:

Fisikoa: Emakume baten gorputzaren aurkako edozein ekintza edo ez egitea, lesio fisiko bat edo kalte bat eragiteko emaitzekin edo arriskuarekin, hau da, biktimaren osotasun fisikoan zuzenean eragiten duen edozein tratu txar edo eraso mota da. Indar ekintzat honako hauek hartzen dira: Bikotea kolpatzea, edozein arma motarekin erasotzea, bultzatzea, mutilatzea, itotzea, erretzea, heldzea, atximurkatzea, bultzatzea, zaplaztekoak

ematea, iletik tiratzea, kosk egitea, alkohola edo drogak kontsumitzera behartzea...Eta ez egiten barnean aldiz, biktimari jatea, edatea, sendagaiak hartzea etab eragozte.

Psikologikoa: Edozein kalte emozional edo autoestimua gutxitzea barne hartzen du, garapen pertsonalari kalte eginez edo nahastuz, ekintzak, portaerak, sinesmenak eta erabakiak mehatxuaren, jazarpenaren, umilazioaren, murrizketaren, desohorearen, manipulazioaren edo isolamenduaren bidez kontrolatzea. Baita ere, larderiaren bidez beldurra eragitea; pertsona bati, bikotekideari edo seme-alabei kalte fisikoa eragiteko mehatxua egitea, edo maskotak eta ondasunak suntsitzea; pertsona bati tratu txar psikologikoa ematea edo lagunengandik, familiarengandik, eskolatik edo lanetik isolatzera behartzea. Beraz, biktimari kalte emozionala eragitea, haren ekintza manipulatzera edo kontrolatzera eta autoestimua murrizte bilatzen da.

Sexuala: Bikote barruko sexu-indarkeriaren biktimak genero-indarkeriaren biktimak dira, emakumeak sexu askatasuna duelako erabakitzeko noiz, nola, non eta norekin dituen sexu-harremanak. Indarkeria mota honetan barneratzen da, emakumea sexu-ekintza batean parte hartzera behartzea haren baimenik edo onespenik gabe. Honako hau, hain agerikoa ez dela ematen du, nahiz eta emakumeek erabakitzeko duten eskubidea legeak babesten duen, gizarteak oraindik ez du bere gain hartu emakumeak bikotearen barruan duen askatasun hori, mendeetan zehar gizonari bikotekidearen sexualitateari buruzko erabakiak hartzeko eta bikotekidea gizonaren aldeko zerbitzutzat ezartzeko eman zaion ahalmenarengatik, eta, aldi berean, emakumeei plazerra ukatu zaie, denbora luzean zehar, gizonari bere premia sexualak asetzeko balio zion neurrian bakarrik. Izan ere, bikotearen barruan sexu-askatasunaren aurkako atentatuen ondoriozko genero-indarkeriagatiko salaketen ehuneko oso txikia da, emakumeak berak ez duelako ezagutzen bikotearen barruan duen sexu-askatasunerako eskubidea; Gehienetan, indarkeria psikologikoaren eta fisikoaren biktimak, sexu indarkeriaren biktima izaten dira ere, baina sexu-askatasunerako eskubideari buruzko lotsak eta kontzientziarik ezak biktimizazio hori isiltzen du askotan.

Ekonomikoa eta ondarezkoa: Emakumeak bere ondasunak nahastuz, edukiz edo jabetza eskuratu ahal izateko desberdintasuna. Beste pertsona baten finantza-mendekotasuna lortzea edo lortzen saiatzea da, eta, horretarako, bere finantza-baliabideen gaineko



erabateko kontrola izatea, baliabide horiek eskuratzea galaraziz eta lan egitea edo eskolara joatea debekatuz.

### III. BIKTIMIZAZIOA: GENERO INDARKERIAREN BIRBIKTIMIZAZIOA ETA BIKTIMIZAZIO JUDIZIALA ESPAINIAKO KASUAN

#### A. BIKTIMIZAZIOA KONTZEPTUA ETA MOTAK

Aurretik adierazi den bezala, biktimizazioak pertsona edo talde bat biktima bihurtzen den prozesu osoa hartzen du. Definizio hori baketsua da doktrinan, baina ez hainbeste existitzen diren biktimizazio motak, gaur egun hiru kategoria – lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak – egituratu baitira horien gainean. Lehen eta bigarren mailako biktimizazioak postulatu finkatuak biltzen ditu. Hirugarren mailakoak, nahiz eta errekonozimendu-saiakerak egon, iritzi-multzo bat baino ez da. (Morillas, Patró eta Aguilar, 2014).

Lehen mailako biktimizazioa: Pertsona batek, zuzenean edo zeharka, delitu edo egitate traumatikoaren ondorio kaltegarriak pairatzen dituen prozesuarekin identifikatzen da, haren izaera materiala edo psikikoa edozein dela ere; hau da, delituak edo krimenak berak sortutako biktimizazio-prozesua barne hartzen du. Landrove Díazek (1998) oso ondo sistematizatu zituen haren ondorioak: delituaren kalte fisiko edo materiala areagotzen duen inpaktu psikologiko larria, erasoaren aurreko ezintasuna, errepikatzeko beldurra, antsietatea, larritasuna edo abaildura sortzea, erruduntasun-sentsazioa sortzea, eta horrek subjektuaren ohituretan eragina izatea, harremanetarako gaitasuna aldatuz. Horri, gainera, biktimarekiko erantzun soziala gehitzen bazaio, eta hori ez bada beti solidarioa, isolamendu handiagoa sortzen du.

Bigarren mailako biktimizazioa: Osasunaren Mundu Erakundeak (2004) adierazi du biktima gisa salaketa jartzera joaten den pertsonak, gehienetan, jarrera axolagabea eta tratu bihozgabea izaten dituela. Hain zuzen ere, lege-sistemarekin izandako topaketa horretan, salaketak jasotzeaz, gertakariak ikertzeaz eta ebidentzia fisikoa eta froga-materiala biltzeaz arduratzen diren profesional gehienak ez daude gaituta kalitatezko arreta emateko.

Hainbat adierazpen erabili dira, nahitaez sinonimoak ez izan arren, delitu-fenomenoa eta biktimei eragindako kaltea aztertzeko. Gutiérrez de Piñerese, Coronel eta Pérezek (2009) bigarren mailako biktimizazioaren kontzeptuaren berrikuspen teorikoa egin zuten, eta hainbat izendapen aurkitu zituzten: (a) biktimizazio kriminala, (b) desbideratze deribatua, (c) birbiktimizazioa eta (d) biktimizazio bikoitza. Nazio Batuen Populazio Funtzaren arabera (UNFPA, 2013), bigarren biktima-esperientzia da. Eta Ojedak (2015) bigarren biktimizazioa deitzen dio, eta sistema judizialak eragindako tratu txar gisa definitzen du, sistema hori osatzen duten profesionalek ordezkaturak.

Definizio osatu bat Tamaritek (2006) emandakoa izan zen. Berak adierazi zuen, birbiktimizazioa delitu-egitate baten biktimarentzat auzipetzen den prozesu penalean esku hartzeak dituen kostu pertsonalen multzoa dela. Kontzeptuak barne hartzen ditu poliziaren edo epaitegien galdeketetatik, auzitegiko medikuaren miaketatik edo ahozko epaiketari iraintzailearekin izandako kontaktutik eratorritako efektu traumatizatzaileak. Zentzu zabalagoan, komunikabideek gertaeraren berri ematearen ondorioak ere kontuan hartu behar dira.

Horrenbestez, biktimak jasandako delitua epaitzen duen prozesu penalean esku hartzeak kostu pertsonal batzuk eragin diezazkioke biktimari. Horien artean, prozeduran zehar biktimarentzat sortzen diren ondorio fisikoak, materialak, psikikoak edo moralak sar ditzakegu, bai galdeketetan, gertakarien berreraikuntzetan, akusatuak identifikatzean zein epaiketetan bertan, baita atzerapenak, geroratzeak eta moteltasuna ere. Gainera, kasu askotan eragin negatiboa du komunikabideek informazioa tratatzeak. Garrantzitsua da azpimarratzea ohikoa dela biktimak bere itxaropenak ez betetzea epaitzari dagokionez, beti ez baita asetzen nahi den neurrian kaltea ordaintzeko interesa. Maiz entzuten da biktima askok ez dutela salaketarik jartzen, hain zuzen ere, bigarren biktimizazio hori jasateko beldurratetik (Rodriguez Gonzalez, 2021).

Birbiktimizazioaren fenomenoa gertatzeko arrazoa izan daiteke, hasierako atalean aipatu dugun moduan, Estatuak arreta osoa delitugilearengan jarri duela, eta, ondorioz, biktima hondar-posizioa murriztu duela, lekukoaren tresna huts gisa jarduten baitu, haren beharrak kontuan hartu gabe.

Birbiktimizazioa gure lege-sistemaren arazo handienetako bat da; izan ere, ezin da ulertu biktima errugabe batek bere burua babesteko sistema beraren ondoriozko aurreiritziak izatea. Eta horrelako egoera batean aurkitzea biktima bereziki larria da; izan ere, delitu batek eragindako kalteak jasan dituzten pertsonak kalte horiek jasaten dituzte, eta, gainera, delitua egin aurreko unean baino egoera zaurgarriagoan daude, lehen biktimizazio batetik igaro baitira. Horri guztiari gehitu behar zaio bigarren mailako biktimizazioak sistemaren beraren ospeari eta biktimak eta hirugarrenek sistemarekiko dituzten jarrerei eragiten diela (Garcia-Pablos de Molina, 2016).

Biktimizazio judiziala: Birbiktimizazioaren barnean biktimizazio Judiziala barneratzen da, honek, zehazki, biktima batzuek sistema judizialek jasotzen duten tratu desagokiari egiten dio erreferentzia, zeina operadore judizialen bitartez ordezkaturata baitago, biktima lege-sistemarekin harremanetan jartzen denetik, salaketa jarri eta prozesuari lotzen denetik, egitateak argi eta garbi legezkoak diren testuinguru edo instantzia batean argitu arte. Beraz, erreferentzia egiten dio, operadore judizialaren praxi desagokiari. Kontzeptuak ez ditu barnean hartzen erakunde sozialak, sanitarioak eta komunikabideak. (Avendaño; Mantilla 2020).

Rodriguez Gonzalezen (2021) arabera, doktrina zientifikoa berrikustek — besteak beste, biktimek sistema judizialari buruz duten pertzepzioarekin lotutako azterketa enpirikoak — aukera ematen du argi eta garbi identifikatzeko biktimak sistema judizialarekin duen interakzioan biktimizazio judiziala agertzeko erabakigarriak diren lau faktore. Faktore horiek, autore ezberdinen arabera, lau alderdi zehatzekin identifikatzen dira: a) prozesuari buruzko informazio eta ulermen eza; b) eragile juridikoen jardun profesional desagokia; c) atzerapen prozesalak; eta d) eragile juridikoen prestakuntza espezializaturik eza.

Biktimizazio tertziarioa: Aipatu dugu ez dagoela horri buruzko aho bateko irizpiderik, baizik eta kontzeptuzko eraikuntzen batura bat, kasu askotan elkarren artean loturarik ez dutenak. Adibidez, Landroveren (1998) arabera, Estatuaren aparatuak delitugileentzat duen errepresio-izaera osoa da, eta hor sortuko litzateke benetako espetxe-biktimizazioa, askatasun-gabetze bat pairatzeaz gain, haren ondorio laidogarriak nozituko lituzkeena. Beste alde, Tamarit Sumallak (2006) eta

García-Pablosek (2009) zigorraren kostu multzoarekin identifikatzen dute, hau da, zigorraren euskarri den pertsonaren edo hirugarrenen kostuekin, eta premisa logiko honekin izan beharko luke zerikusia: pertsonen eta gizartearen gaineko delituaren kostuak haztatu egin behar dira arau-hausleak berak, hirugarrenek edo gizarteak berak dituen zigorren kostuekin.

## B. DATU ESTADISTIKOAK GENERO INDARKERIA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARI DAGOKIONEZ

Genero-indarkeriako birbiktimizazioa arazo konplexua eta zehaztasunez neurtzeko zaila da, baina badira Espainian gai horri buruzko informazioa ematen duten datu eta azterlan batzuk. Adibidez:

- Zigor Zuzenbideari eta Kriminologiari buruzko Aldizkarian (2016) argitaratutako ikerketa baten arabera, genero-indarkeria salatzen duten emakumeak, askotan, babesgabe eta birbiktimizatuta sentitzen dira sistema legal eta judizialaren ondorioz.
- Segurtasun Publikoaren Sistema Nazionaleko (SESNSP) Idazkaritza Exekutiboaren genero-indarkeriako kasuen erregistroak adierazten du genero-indarkeria salatzen duten emakume asko berriz biktimizatzen direla, agintariak behar bezalako arreta ematen ez dietelako.
- Berdintasun Ministerioak aurkeztutako Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2019ko Makroinkestaren arabera, elkarrizketatutako emakumeen % 84,5ek uste zuen osasun-langileen edo poliziaren galderak eta jarduerak ez zirela egokiak, eta horrek birbiktimizazio-sentsazioa eragin dezakeela.

Hala ere, datu eta azterketa horiek hurbilketa batzuk baino ez dira, eta litekeena da birbiktimizazioa errealitatean arazo askoz zabalagoa eta konplexuagoa izatea. Ondoren aipatutako dugun bezala, harrigarria da fenomeno honen azterketak eta ikerkuntza hain gutxi izatea.

## C. BIRBIKTIMIZAZIOA ETA GENERO INDARKERIA

Genero-indarkeriaren testuinguruan eta biktimaren kalteberatasunaren ikuspegitik, funtsezkoa da bigarren mailako biktimizazioa aztertzea, biktima sistema juridiko-penalarekin harremanetan jartzen denetik aurrera.

Doktrina bereziki kritikoa izan da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek bigarren mailako biktimizazioaren aurrean jasaten duten babesgabetasunarekin. Ildo horretan, Ruiz Ricok (2014) adierazi zuen Genero-indarkeriaren babes integralaren Lege Organikoak, ondorengo atalean aztertuko dugun bezala, hutsune garrantzitsuak dituela. Bereziki, arlo horretan eskumena duten Administrazioak eta Epaitegiek egin ditzaketen irregulartasun eta akatsen ondorioz, erantzukizun administratibo eta judicial egokiak eskatzea ahalbidetuko duen berariazko araubide juridikorik aurreikusten ez delako eta beraz, birbiktimizazio kasuak ematen direnean, biktima babesgabe geratzen delako.

Nahiz eta, Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legeak hura saihesteko zenbait babes-neurri ezarri (informazioa ematea, ulertzeko eskubidea, langile prestatuak izatea...), ez dirudi arauak aplikatzeko inguruabarrek ahalbidetzen dutenik proposatutako helburua lortzea. Arau horiek ezartzen dituzten protokoloak operadore juridikoek bete behar dituzte, baina haien aplikazioa desegokitzen jotzen den jardun profesional baten mende daude (Cubells, Calsamiglia eta Albertín, 2010).

Bestalde, genero-indarkerian, bigarren mailako biktimizazioaren eta biktimizazio judicialaren ondorioak nabaritasun handienaz hautematen diren eremuetako bat den arren, doktrinak adierazi duenez, sistema juridiko-penaletik haien prebentziorako eratortzen diren ekimenak ez daude tresna enpiriko eta fidagarrietan oinarrituta, ez baitute kontuan hartzen horri buruz informazio onena eskain dezaketenen, hau da, biktimen, parte-hartzea. Azterketa psikosozialaren eremuan izan ezik (Cubells, Calsamiglia eta Albertin, 2010) Espainian ez da ezagutzen biktimizazio-modu hori eragiten duten faktoreak, kausak edo inguruabarrak identifikatzeko biktimen esperientzian oinarritutako azterketarik egin denik. Rodriguez Gonzalezen (2021) iritziz deigarria da, sistema juridiko penalak, zeina, birbiktimizazioaren eta bereziki biktimizazio judicialaren alderdi arduradun gisa identifikatzen dena, gai honen inguruan ekimenik egin ez izana. Horien bitartez lortuko zelako, modu objektibo batean,

biktimizazio modu horren faktore erabakigarriak identifikatzen eta azken batean, neurri erreal eta eraginkorrak hartzea fenomeno hau ekiditeko.

#### D. BIKTIMIZAZIO JUDIZIALA ETA GENERO INDARKERIA

Adierazi bezala, arlo judiziala, agintari judizialei, diziplinakoei eta fiskalei dagokie, eta horiek herritarren segurtasuna eta osotasuna babesteko betebeharra dute (Sanabria, Clavijo eta Silva, 2015). Hori kontuan izanda, atal honetan, operadore juridiko horiek beraien jardunean biktimei eragiten dieten eskubideen urraketa aztertuko dugu zeinak birbiktimizazio judiziala eragiten duen. Atala garatzeko Rodriguez Gonzalezek (2021) Birbiktimizazioa sortzen duen hutsuneak hartuko ditugu kontuan.

##### 1. Prozesuari buruzko informazio eta ulermen eza

Delituaren Biktimaren Estatutuaren 4. artikulutik 10.era bitartekoez hainbat eskubide eta neurri jasotzen dituzte, eta horien helburu nagusia da biktima orok prozesuari, dagozkion eskubideei eta horiek egikaritzeko aukerei buruzko informazio nahikoa jasotzeko duen eskubidea bermatzea da. Bi alderdiko eskubidea da, biktimak informazioa jasotzeko duen eskubidea ez ezik, informazioa ulertzeko eskubidea ere badakarrelako. Horrela, legediak prozesuaren jarduketa guztiak ulertzeko biktimak duen eskubidea aldarrikatzen du, baita, aldi berean, ulertua izateko eskubidea ere, gertatu zaiona azaldu eta ulertarazteko aukera emanez (Llorente, 2015).

Testuinguru horretan, funtsezkoa da Fiskaltzaren eginkizuna, haren Estatutuak, 50/1981 Legea, abenduaren 30ekoa, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duena, biktimen babes prozesala zaintzera behartzen baitu, zehazki, 3.10 artikuluan, laguntza eraginkorra jasotzeko aurreikusitako mekanismoak sustatuz eta, beraz, beren egoerari egokitutako informazioa jasotzen dutela bermatuz.

Biktimaren abokatu-defentsaren jarduna ere funtsezkoa da, prozesu osoan lagunduko baitio. Laguntza hori ezinbestekoa da, izan ere, biktimak izan diren emakumeen askoren jarrera isolamendua delako eta beharrezkoa da bere defentsa egikaritu behar duen pertsonak formakuntza egokia izatea (Hirigoyen, 2006). Abokatu-defentsaren laguntza horrek zigor-arloko prozesutik igarotzea errazten dio biktimari, eta ezinbestekoa da

bigarren mailako biktimizazioa prebenitzeko, prozedura judizialean zer gertatuko den jakiteko aukera ematen diolako, eta, bereziki, erabakiak batera hartzen lagunduko diolako, jarduketa horrek biktima inplikatzeko eta ulertzen laguntzen duelako, bai eta prozesua uzteko aukerak ezabatzen ditu ere.

Azkenik, ezin da alde batera utzi Biktimei Laguntzeko Bulegoek biktimaren informazio-eskubidea betetzeko egiten duten funtsezko lana, eta, bereziki, arriskuari eta bigarren mailako biktimizazioa prebenitzeko moduari buruzko aholkularitza-lana, dohainik eta konfidentzialki. Euskal Herrian, bulego horiek, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Barakaldon aurkitzen dira justizia-jauregien ondoan. Garrantzitsua da genero-indarkeriaren biktimari aipatutako bulegoen berri ematea, bai eta horiek ematen dituzten zerbitzuen berri ere, baina laguntza hori jasotzea biktimaren ekimen soil eta hutsera mugatzea, jasan nahi ez duen beste karga bat izan daiteke, beraz, beharrezkoa da profesionalen jarrera aktiboa

Ildo horretan, hasieran adierazi dugun bezala, biktimaren zirkunstantzien ebaluazio partikularra funtsezkoa da biktima bakoitzari eman beharreko laguntza- eta babes-neurri zehatzak zehazteko, eta, beraz, jaso beharreko informazioaren edukia eta informazio hori emateko modua zehazteko. Kontuan izan behar da, nahiz eta Genero-indarkeria fenomeno estrukturala izan eta desberdintasunean eta botere-harremanetan izan bere jatorria, honek emakumeengan sortzen dituen esperientzia eta ondorioak ez direla berdinak (Damonti eta Amigot, 2021). Hau da, emakumeen errealitateak homogeneizatzen saiatzean, desberdintasun-ardatz desberdinek zeharkatzen dituzten kolektiboak ikusezin bihurtzeko arriskua du.

Hala ere, nahiz eta eskubide hau aldarrikatua izan, errealitatea beste bat da. Noelia Aranda Maizek eta Ane Lekanda Altzibarrek WARMÍ aldizkari zientifikoarentzat egindako ikerketan (2022), genero indarkeriaren biktima bati egin zioten elkarrizketa. Eta emakumeak eskubide honen urraketa izan zuen, honako hau deklaratu baitzuen: *“No te informan de nada. Ni de los derechos como víctima. Yo no sabía nada. Cuando ya me dieron la orden de alejamiento bien pero igual se la saltaba, se la saltaba”* eta *“Sentí todo muy frío, nadie me explicaba nada, yo no entendía nada”*

## 2. Eragile juridikoen jardun profesional desegokia

Delitua ikertzeko eta epaitzeko prozesuan zehar, biktimak hainbat eragile juridikorekin jartzen da harremanetan eta eragile juridiko horiek bigarren mailako biktimizazioa eta biktimizazio judiziala murriztea edo areagotzea eragin dezake. Aldi berean, biktimak eragile juridikoekin duen harreman horrek hainbat faktoreren mende dauden sentimenduak sortzen ditu eragile juridikoengan, hala nola biktimaren irudikapena, delituaren inguruabarrak edo haren gainean duten ikuspegi estereotipatua (León eta Aizpurúa, 2018).

Ebidentzia gisa, Cubellsek et al. 2010ean, arlo juridiko-penalean genero-indarkeriari aurre egiteko jardun profesionalaren azterketa psikosoziala egin zuen eta bertan, sistemaren eta genero-indarkeriaren biktimen arteko desadostasun nagusietako bat eragile juridikoen jarrera jakin batzuekin identifikatzen dela adierazi zuen. Biktimak salaketa kentzeko duen borondatearen aurrean izandako erreakzio negatiboek ari da, erasotzailearen aurka deklaratzeari uko egiteaz, urruntze-aginduak ez betetzeaz edo kontakizunarekiko konfiantzarik ezaz, besteak beste. Azken batean, eragile juridiko jakin batzuen erreakzio negatiboa; izan ere, ez diote biktimari tratatu txarretik ihes egiteko profil proaktiborik ikusten, eta lanbide-jardunean «genero-ikuspegirik» ez izatearekin identifikatzen da. Perspektiba feministarik ezak erakusten du gaitzespen-jarrerak biktimari eragin diezaiokela berriro salatu nahi ez izatea, eta horrek, alde batetik, sistemaren funtzionamendua zalantzan jartzera garamatza, eta, bestetik, funtzionamendu txar horren ondorioz zifra beltzaren zer ehuneko dagoen galdetzea.

Jarrera negatibo horiek agerian uzten dute genero indarkeriaren arazoaren ertz konplexuak ulertzen ez direla eta sistema judizial egoki bat izateko beharrezkoa da hutsune hauei buruz hausnartzea eta zuzenketa prozesu bat martxan hastea. Horretarako, Rodriguez Gonzalezen (2021) arabera, ez da beharrezkoa sistema judizialaren jarduera eremua emakumearen aldekoa izatea, baizik eta, inpartzialtasunez jardun behar da, generoan oinarritutako desabantaila, diskriminazio eta indarkeriazko egoerak identifikatuz eta biktimen duintasuna eta eskubideak gehien errespetatzen laguntzen duten lege eta prozedura mekanismoak erabiliz.



Beste alde, bigarren mailako biktimizazio arriskuaren prebentzioan kontuan izan behar da testigantza momentua. Une hori, orokorrean, ez da bakarra izaten, prozesuan zehar hainbat aldiz ematen da eta eragin negatiboa izan dezake. Izan ere, deklarazioaren unea, instrukzio fasean edo ahozko epaiketan, biktimak diren emakumeek prozeduraren unerik okerrenetako bat dela uste dute orokorrean (Trigo, Sala eta Calderón, 2012). Honen aurrean lehen aipatutako elkarrizketatuak, honako hau adierazi zuen *“Me sentí impotente parecía que tenía que justificar y oque me maltratan. Te volvían a preguntar una y otra vez, te recalaba que por qué no habías ido antes, por qué no denunciaste antes...Es violento”*. Horregatik, ezinbestekoa da prozesuan esku hartzen duten profesionalak genero-ikuspegitik eta ikuspegi interseksionaletik egitea. Modu horretan bakarrik eskaini ahal izango da kalitatezko arreta eta horrela ziurtatuko dira biktimen eskubideak prozesuan. Elementu hori garrantzitsua da mota guztietako prozesuetan, eta, bereziki, genero-indarkeriako kasuetan.

### 3. Atzerapen prozesalak

Martinez Ucedaren eta Castrillo Santamariaren (2021) arabera, Genero-indarkeriako delituak ikertzeko eta epaitzeko prozesuei modu berezian eragiten dien kaltea izan gabe ere, Justizia Administrazioaren funtzionamendu osoari eragiten die, prozesu-luzapenek areagotu egiten dute genero-indarkeriaren biktimei kalte psikologiko eta emozionalak pairatzeko arriskua; bestalde, sistemaren babesgabetasun-sentimendua eta harekiko mesfidantza agertzen laguntzen dute. Hala, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek presa adierazten dute dena lehenbailehen amaitzeko

Izan ere, prozesu-luzapenek berekin ekarri ohi dute biktima prozesuan behin eta berriz agertzea, eta egitateen lekukotza errepikatu behar izatea, denboraren joanak eragin negatiboak ekarriko dizkiona, izan ere, emakumeen errekupeazioan eragin negatiboa du, desbiktimizazio-prozesua luzeagoa eginez eta frustrazio- eta ezintasun-sentimenduak eraginez, emakumeak sistemarekiko mesfidantza sentiaraziz.

Aldi berean, atzerapen prozesalen ondorioz, biktimak eragozpen ugari eta askotarikoak izaten ditu eguneroko bizitzan, bizitza pertsonalean eta profesionalean, prozesu penaletik eratorritako jarduketa eta errekerimendu guztietan parte hartu behar duelako eta, aldi berean, bere ausentzia justifikatu behar duelako laneko, lanbideko, familiako,

gizarteko eta bestelako konpromisoen aurrean. Hala, atzerapen prozesalek, biktimarentzat hain kaltegarriak diren egoerak, hala nola, enplegua galtzea, edo familia-eta gizarte-bizitzaren nahasmendua eragiten dituzte.

Hori dela eta, Justizia Administrazioa ez dago behartuta luzapen horiek ezabatzeke behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzera bakarrik, baizik eta operadore juridikoek horiek minimizatzen lagundu behar dute, atzerapenik gabe eta eraginkortasunez jardunez. Adibidez, salaketa egin bezain laster biktimari galdeketa egingo zaio, prozesuaren helburuetarako behar-beharrezkoak diren adierazpenetara murriztuz bere deklarazioen kopurua, eta prozesuaren garapenaren gorabeherak azkar konponduz.

Nolanahi ere, kontuan hartuta bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu baten bermea ez dagoela ikerketa judizialean eskatutako efikaziarekin eta arretarekin lotuta. Ildo horretan, eta genero-indarkeriako delitu baten ikerketa baten testuinguru zehatzean, Konstituzio Auzitegiak uztailaren 20ko 87/2020 epaian, gogorarazi behar izan du delitu-tipologia hori ikertzeko ardura-betebeharra: *“abundar en la investigación allí donde no se hayan agotado las posibilidades razonables de indagación sobre los hechos de apariencia delictiva, vulnerándose el derecho a la tutela judicial efectiva si el órgano judicial clausura precipitada o inmotivadamente la investigación penal»*

#### 4. Eragile juridikoen prestakuntza espezializaturik eza

Sistema juridiko-penalak genero-indarkeriaren biktimek bereziki jasotzen duten biktimizazio judizialaren aurkako babes-neurrien aplikazioa berma dezan lortzeko, beharrezkoa da eragile juridikoen prestakuntza espezializatua.

Eragile juridikoen prestakuntza espezializatu hori, zehazki, epaleei eta magistratuei, fiskalei, Justizia Administrazioaren letraduei, segurtasun-indar eta -kidegoei eta auzitegi-medikuei dagokie, 1/2004 Lege Organikoaren 48. artikulua aranera. Hala ere, horiek ez dira berdintasunaren eta sexuagatiko diskriminaziorik ezaren eta genero-indarkeriaren inguruko berriazko formazioa jasotzen duten eragile juridiko bakarrak, Espainiako Abokatutzak prestakuntza-ekimen ugari egiten baititu, adibidez, bere elkargokideak gaitzeko. Izan ere, prestakuntza espezializatu hori funtsezkoa da

genero-indarkeriaren konplexutasuna eta inplikazioak ulertzeko eta, azken batean, lanbide-jardunean sentsibilizazio handiagoa lortzeko.

Hala ere, biktinek bigarren mailako biktimizazioaren kausa gisa aipatzen eta identifikatzen duten beste inguruabar bat, zerbitzu judiziala dela-eta gertatzen dena, biktimen orientaziorako, laguntzarako eta ongizaterako beharrezko lanbide-prestakuntzarik ez duten pertsonen funtzioak esleitzea da, eta horrek bereziki eragiten du genero-indarkeriaren biktimen kasuan (Mantilla eta Avendaño, 2020). Horregatik, operadore juridikoen prestakuntza espezializatu horretan badirudi ahaleginak egiten ari direla, eta, hala ere, oraindik ere bigarren mailako biktimizazioaren kausa gisa ikusten da, esan dezakegu beraz, beharrezkoa dela neurri eta formakuntza horiek berrikustea (Rodríguez eta Bodelón, 2014). Ildo horretan, doktrinak dionez, irtenbidea ez da prestakuntza-aukerak handitzea, baizik eta Justizia Administrazioak eta genero-indarkerian inplikaturako erakunde guztiek genero-indarkeriako delituak ikertzeko eta epaitzeko prozesuan parte hartzen duten eragile juridikoei beharrezko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea erraztu eta exijitzea, emakumeek erasoaren aurrean duten portaera ulertzea ahalbidetzeko (Cubells, Albertin; Rusiñol, Hernáez, 2006) , ulermen hori edozein biktimaren inguruabarretara egokitutako erantzunak eskaintzera bideratuz, haren sentsibilizazioa eta gaikuntza hobetuz.

Gainera, arduradun publikoek eragile juridikoen inplikazioa, prestakuntza eta espezializazioa kontrolatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko lanak ezinbestekoak dira proposaturako helburuak lortu direla egiaztatzeko. Eta, Rodríguez Gozalezek (2021) dioten bezala, eragile juridikoen eta biktimen beraien artean prozesu penaletik kanpoko topaguneak sustatzea, horrela, haien errealitatea eta biktimen lana elkar ezagutzea errazteko.

Hala ere, aurretik aipatu dugu, gaur egun berrikuntza baten falta nabaria dela, eta horren adibideetako bat da, aurretik aipatu dugun elkarrizketatuak prestakuntza honetan ere, hutsune handiak sentitu zituen, bereziki operadore juridikoen sentsibilizazio ezaren eraginez. Landa eta Lekanda 2022. Op. cit., 38 or.

Aurrekoarekin lotuta, honako hau gaineratu behar da: askotan, emakumearekiko sentsibilitate berezirik ez izateaz gain, haren osotasuna eta segurtasuna ere ez dira zaintzen, eta erasotzailearekin espazioa partekatu behar izaten du deklaratu aurreko uneetan. Gertakari hori bereziki kaltegarria da emakumeentzat, eta krisiak eragin ditzake, baita aitortzeri uko egin ere.

#### IV. GENERO INDARKERIAREN LEGEDI NAGUSIAREN AZTERKETA

Adierazi dugun bezala genero-indarkeria arazo globalizatua da eta ez da soilik herrialde batean gertatzen den fenomeno isolatua . Fenomeno horrek nazioarteko komunitatean izan duen eraginak legegintza-jarduera zabalari bide eman dio indarkeria-mota zehatz hori desagerrarazteko hainbat neurri garatzeko helburuarekin. Nahiz eta babes hauek izan, ONUren datuen arabera, mundu mailan kalkulatzen da 736 milioi emakumeek (hirutik bat inguru) pairatu dutela noizbait indarkeria fisikoa edo sexuala bikotekideen eskutik edo bikotekidea ez zen norbaitek eraginda. Gainera, datuei erreparatuz, emakumeen gain eragindako indarkeria gehien bat ezkontideek edo bikotekideek eraginda izaten da, 15 urtetik gorako 640 miloi emakumeek baina gehiagok jasan dute noizbait bikote-indarkeria.

Jarraian, lan hau garatzeko garrantzitsutzat jotzen da azken hamarkadetan nazioartean, Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan hartutako legegintza-neurriak eta zer hobekuntza edo hutsune izan dezaketen genero indarkeriari eta birbiktimizazioari begira.

##### A. NAZIOARTE MAILAN

Genero-indarkeriaren aurkako gobernuaren ordezkartzaren argitalpenean agertzen den bezala(<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/marcoInternacional/ambitoInternacional/home.htm>) , Nazioarteko Zuzenbidean nabarmendu beharreko lehen araua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da, Nazio Batuek 1948ko abenduaren 10ean aldarrikatua. Bigarren Mundu Gerraren indarkeriaren ondorio izan zen, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestearen garrantziari buruz garatu zen kontzientzia globalaren ondorio. Bertan, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen multzo bat

ezartzen du, eta, bigarren artikuluan baieztatzen duen bezala, pertsona guztiei dagozkie, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa edo beste edozein baldintza diskriminazio arrazoi izan gabe.

Geroago, 70eko hamarkadan, nazioartean mugimendu feminista indar handiagoz agertzen hasi zen. Horren erakusgarri da Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1975 Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zuela, eta, mugarri garrantzitsua izan zen genero-berdintasunaren aldeko borroka globalean. Ekitaldi horrek 1975ean Mexikon egindako Emakumeari buruzko lehen Mundu Konferentziaren inspiratu zuen, eta mundu osoan emakumeen eskubideak eta berdintasuna sustatzera bideratutako ekimen eta programa askoren oinarriak ezarri zituen. Emakumeen eskubideen eta nazioarteko bakearen aldeko Nazio Batuen eguna ere sortu zen, gaur egun urtero martxoaren 8an ospatzen dena.

Ildo horretatik, 1979an, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) onartu zuen, Munduko herrialde gehienek berretsi zuten itun hori, Espainiak, zehazki, 1984 urtean. Bertan, hainbat neurri ezarri zituen gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan, enpleguan, osasunean eta bizitza politikoan. Gainera, CEDAWk emakumeen eskubideak babestea eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzea ere bilatzen du.

Urtebete geroago, 1980an, Emakumearentzako Nazio Batuen Hamarkadaren II. Mundu Konferentzia egin zen, munduko lehen konferentzian ezarritako helburuak betetzeko egindako aurrerapenak aztertzeko. Onartu zen ekintza-programak neurri nazional irmoak jasotzen zituen emakumeek jabetzaren edukitza eta kontrola izango zutela bermatzeko, bai eta emakumeen eskubideak hobetzea ere, jaraunspenari, seme-alaben zaintzari eta nazionalitateari dagokienez. Hitzaldi horretan berariaz aipatzen da familiako indarkeria.

1985ean uztailaren 11tik 29ra, Nairobin, Emakumearentzako Nazio Batuen Hamarkadako Lorpenak Aztertzeko eta Ebaluatzeko III. Mundu Konferentzia egin zen, honako goiburuarekin: Berdintasuna, Garapena eta Bakea.

Aipatzekoa da, halaber, Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko Adierazpena, 1993koa, NBEk onartua. Estatuentzat derrigorrezkoa ez den arren, ez baitu izaera loteslerik, emakumeen aurkako indarkeria definitzen duen nazioarteko lehen testua da. Bertan, adierazi zen, genero indarkeria, emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dion edo eragin diezaiokeen indarkeria-ekintza oro dela, bai eta ekintza horien mehatxuak, derrigortzeak edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere. Berdin izanik bizitza publikoan edo pribatuan gertatzen den.(NBE, 1993, 1 or)

Eta, azkenik, Benjinen 1995.urtean egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzia. Beijingeko Ekintza Plataformak gai hauek jorratzen ditu, besteak beste: hezkuntza, enplegua, legearen aurreko berdintasuna, arreta medikorako sarbidea eta genero-indarkeriaren aurkako borroka. Beijingeko Konferentzian funtsezko bi dokumentu onartu ziren: Adierazpen Politikoa eta Beijingeko Ekintza Plataforma. Adierazpen Politikoak berretsi egin zituen herrialdeek genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin dituzten konpromisoak, eta Ekintza Plataformak ekintza-plan orokor bat ezarri zuen genero-berdintasunean eta emakumeen ahalduntzean aurrera egiteko. Bi dokumentu horiek konferentzian parte hartu zuten 189 herrialdek onartu zituzten. Beijingeko Konferentziak Nairobiri jorratutako problematika biltzen du, hots, kulturalki pertsonen sexuaren arabera esleitutako rola, lotura zuzena ezartzen du emakumearen aurkako indarkeriaren eta genero-arrazoien artean, eta lehen aldiz definitzen du genero-indarkeriaren kontzeptua.

Konferentzia honen aurrerapen garrantzitsuenetako bat jarduketa-mekanismo berri bat sartzea izan zen, "mainstreaming" edo "gender mainstreaming" izenekoak, gobernuek eta gizarte-eragileek beren politiketan genero-ikuspegia integratzeko premia gisa ulertuta.

Ordura arte egindako Mundu Konferentziek emakumeei eragiten zieten gai zehatzetan jarri zuten arreta, baina Pekingoak aurrerapen handia ekarri zuen, aldaketa sozial zabalago baten beharra azpimarratu baitzuen, gizarte osoa nola egituratzen zen zalantzan jartzen baitzuen, adieraziz, ezin dela benetako gizarte garatu eta demokratiko bat egon bi sexuen erabateko parte-hartzerik gabe, bai arlo publikoan, bai pribatuan.

## C. EUROPA MAILAN

Atal hau bi zati desberdinetan banatuko dugu. Lehenengo Europako Kontseiluak emandako arauetan eta ondoren Europar Batasunaren zuzenbidean jarriko dugu arreta.

### 1. Europako Kontseilua: Istanbulgo hitzarmena

Europako Kontseiluak alor honetan emandako araurik garrantzitsuenetakoa 2011.urtean onartu zen emakumeen aurkako indarkeria eta etxeke indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzko hitzarmena izan zen (aurrerantzean, Istanbulgo Hitzarmena). Espainiak berretsia eta 2014ko abuztuaren 1etik indarrean dagoena.

Aurrerapauso garrantzitsua izan zen, genero-indarkeriaren definizio zabala ezartzen baitu, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa barne hartzen dituena eta honako delituak tipifikatzen ditu: behartutako ezkontza (37. artikulua); emakumeen genitalen mutilazioa (38. artikulua); nahitaezko abortua eta esterilizazioa (39. artikulua) eta sexu-jazarpena (40. artikulua). Jasotzen duen delituen tipifikazioa aurrerapen handia da, estatu alderdiak behartzen dituelako delitu horiek beren sistema juridikoetan sartzera eta hartutako konpromisoa betetzera. Gainera, Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeke indarkeriari buruzko Europako lehen tratatu loteslea da, bai eta indarkeria-mota hori giza eskubideen urraketa larritzat jotzen duen lehena ere. (Plumed, 2020)

Hitzarmenaren ardatzetako bat birbiktimizazioa saihestea da, biktima osoki aintzat hartuz. Horretarako neurri desberdinak aipatzen dira, esate baterako, hitzarmenaren 15.artikuluan ezartzen da biktimekin harremanak dituzten profesionalek formakuntza egokia izan beharko dutela, hain zuzen ere, biktimizazio bikoitzeko egoerak prebenitzeko. Horrez gain, hitzarmenak ezartzen du, prozesuaren arloan, krimenak benetan zigortzen direla bermatu behar dela, baina horren zama ezin daitekeela biktimarena izan. Aztertu dugun bezala honako hauek bigarren mailako biktimizazioaren kausa izan daitezkeelako.

Hala ere, Istanbulgo Hitzarmenak bateragarritasun-arazoak sortzen ditu. Batetik, helburuetako bat, delitu-egitateen ikerketa eta pertsekuzioa eraginkorra izatea da, justifikaziorik gabeko atzerapenik gabe eta biktimak zigor-prozesuaren fase guztietarako duen eskubideari kalterik egin gabe. Baina, ezin daiteke ahaztu, biktimak

froga-protagonismo ukazina duela eta zaila dela biktimak erabat ezinbestekoak diren baino kalte gehiago ez jasatea. (Etxeberria, 2022). Honen aurrean, tratatuak estatu sinatzaileei exijitzen die neurriak har ditzaten, 56.I. artikuluan zehazki. Horrela, artikulua beraren 2.puntuan Estatu Alderdiak bermatu behar dituzten helburu batzuk aipatzen dira, besteak beste, biktima babestea biktimizazio berri baten arriskuaren aurrean, bai atariko polizia-prozeduran bai prozesu judizialean.

Bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko helburua lortzeko, eztabaida gehien sortu duena, biktimak behin baina gehiagotan deklaratu behar duenean ikus entzunezko baliabideen bidez grabatutako deklarazioa ahozko epaiketan erabiltzeari buruzkoa izan da, fase horretan eman beharko litzatekeenaren orde. Gure ordenamenduan Prozedura Kriminalaren Lege Organikoaren 416.artikuluan islatzen dena.

Alde batetik, ordezkapen horrek saihestu egiten du neurri batean hitzarmenak exijitzen duena parte hartzen duten estatuei, hain zuzen ere, biktimak deklarazioak errepikatzearen ondoriozko bigarren mailako biktimizazioa. Baina, beste alde batetik, deklarazioa grabatzeak eta ahozko epaiketan erreproduzitzeak sortzen duen oztopo nagusia, aurrez aurrekoaren orde, defentsarako eskubidearekin eta akusatuari dagokion kontraesanarekin eta prozesu (epaiketa) publikorako eskubidearekin lotuta dago (Etxeberria, 2022).

Ohikoa da horrelako prozedurak poliziaren aurrean salaketa bat jarriz hastea, eta une hori da, hain zuzen ere, biktima-lekukoak, askotan traumatikoa izaten den delitu-gertaera instantzia ofizialen aurrean gogora ekarri behar duen lehen unea. Baina biktimak segurtasun-indarren aurrean egindako adierazpenak ez du froga-baliorik, agintaritzaren judizialaren aurrean berresten ez bada, eta ezin da errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko kontuan hartu, nahiz eta lekukotza grabatu eta ahozko epaiketan erreproduzitu. Gauza bera gertatuko da epaitegira atxikitako auzitegiko psikologoaren aurrean egindako deklarazioarekin, deklarazio horretan esku hartzen ez badu instrukzioko epaileak eta alderdiak, eta, bereziki, inputatua bere abokatuarekin, lekukoaren sumarioko galdeketan parte hartu ahal izan dezan, kontraesanerako aukera bermatuta.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, arau orokor gisa, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6.artikuluaren arabera, froga guztiak akusatuaren aurrean egin behar



direla adierazten du. Hala ere, onartzen du polizia-ikerketaren eta eginbide judizialen fasean lortutako deklarazioak froga gisa erabiltzeak ez duela berez xedapen horrekin kontraesanean jartzen. Horri dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak nolabaiteko erabakimena aitortzen die auzitegi nazionaleri lekuko baten lekukotza jasotzea beharrezkoa edo gomendagarria den erabakitzeko.(Etxeberria, 2022)

Beraz, hau esanda, dispentsarako eskubidea birbiktimizazioa saihesteko neurria izan daiteke. Baina, , biktima traumatismo berri baten eraginpean egotea murrizteak, ezin dezake baztertu akusatua defentsa- eta kontraesan-eskubideak.

## 2. Europar Batasuna

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 8. artikulua ezartzen du Batasunak, bere ekintza guztietan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua finkatuko duela. Era berean, 19. adierazpenak, EBFTren 8. artikuluari buruzkoak, adierazten du, Europar Batasunak etxeko indarkeriari modu guztietan aurre egiten saiatuko dela bere politiketan eta horretarako, Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartu behar dituztela delitu-egintza horiek prebenitzeko eta zigortzeko eta biktimei laguntza eta babesa emateko.

Nabarmendu beharreko zuzentarauetako bat Europako babes-aginduari buruzko 2011/99/EB Zuzentaraua da. Hamabi estatuk osatutako talde batek bultzatu zuen 2010ean, Espainiaren lehendakaritzapean. Zuzentarau hori zigor-arloko lankidetzari buruzko EBFTren 82. artikuluko 1. paragrafoan oinarritzen da. Beraz, Batasuneko Estatu Kideek Zuzentarauaren xedapenak txertatu behar zituzten beren legedi nazionalan.

Aipatu behar da, Babes-aginduak babesa behar duen edozein pertsonari aplikatu dakizkiokeen arren, praktikan, neurri horiek etxeko edo familiako indarkeriarekin, jazarpenarekin edo sexu-erasoekin lotutako kasuetan aplikatzen dela eta, gehienbat, emakumeei. Ondoren adieraziko dugun informazioa Europako Parlamentuaren orrialdetik hartutakoa da. (*INFORME sobre la aplicación de la Directiva 2011/99/UE sobre la orden europea de protección | A8-0065/2018 | Parlamento europeo (europa.eu)*)

Zuzentzarua 2015eko urtarrilean indarrean jarri zenetik, Europako Batzordeak, Batasuneko agentziek eta ONGek oso informazio gutxi bildu dute tresna horren erabilera Europar Batasunean ebaluatu ahal izateko. Arrazoietakoa bat, Babesteko Europako Agindua eskatzeko aukeraren informazio falta izan daiteke. Hain zuzen ere, Parlamentuaren Ikerketarako Europako Zerbitzuak, Estatu Kideek gabezia handiak dituztela adierazi eta estatu kideetan biktimei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen gabezia orokorra azpimarratu zuen.

Europako Parlamentuko Azterlan Zerbitzuak 2017ko irailean argitaratutako ebaluazioaren arabera, zazpi babes-agindu baino ez dira zenbatu. Tresna hori oso modu mugatuan erabiltzea harrigarria dela adieraziz, Estatu Kideetan zigor-arloko babes-neurrien onuradun diren biktimen kopurua kontuan hartuta. Biktima horietako asko, ziurrenik, Batasunaren barruan bidaiatzen edo lekualdatzen dira aldizka edo noizean behin. Adibide gisa, kalkulatu zen 2010ean Batasunean bizi ziren 100.000 emakume baino gehiago genero-indarkeriarekin lotutako babes-neurrien babespean zeudela.

Babes-agindu horiek bigarren mailako birbiktimizazio-kasuak saihesteko tresna eztabaida ezinak dira. Hauen xedea pertsona babestea da, bere bizitza, osotasun fisiko edo psikologikoa, duintasuna, askatasun indibiduala edo osotasun sexuala arriskuan jar dezaketen ekintzen aurrean. Eta bereziki, delituaren egilearen edo balizko egilearen eta biktimaren edo eraso jasateko arriskua duen pertsonaren arteko kontaktuak saihestea.

Estatu Kide guztiek eskaintzen dute babes penaleko edo zibileko aginduren bat. Hala ere, neurriak eta aplikatzeko modua oso desberdinak izaten dira praktikan. Horretarako, zuzentzarauak bermatu nahi zuen, Estatu kide batean babes-neurriak eman zaizkion pertsona batek babes baliokide baten onuradun izaten jarraitzea, beste Estatu Kide batera lekualdatzen edo bidaiatzen duenean.

Hala ere, praktikara ez da modu egoki batean ezarri zuzentzarua. ex post ebaluaziotik ondorioztatzen denez, zuzentzarauak ez ditu neurri nazionalak bateratu edo hurbildu: izan ere, biktimak babesteko sistema nazionalak mantentzen dira, biktimak babesteko barne-legeria ez da sakon aldatu, eta zuzentzarua aplikatzeko xedapenek zuzentzarua xedapenak jasotzen diren bezala ezarri dira, ia egokitzapenik egin gabe.

Gainera, Babesteko Europako Aginduek beti dakartenez biktima Estatu Kide batetik bestera eramatea, eta beraz, esan daiteke, biktima guztiek ezagutzen ez duten sistema juridiko bati edo hizkuntza bati aurre egin beharko diotela uneren batean, eta horrek egoera bereziki ahulean jarriko dituela, birbiktimizazioa izateko aukerak potentzialki handituz, honen aurrean, Estatu kide gehienek ez dute neurri edo xedapen espezifikorik ezarri. Honekin lotuta, Adituek azpimarratu dute funtsezkoa dela babes-neurriak behar dituzten biktimekin harremanetan egon daitezkeen profesionalen prestakuntzaren gaia. Eskura dauden datuen arabera, oso Estatu Kide gutxik antolatu dituzte arlo honi buruzko prestakuntza espezifikoak.

Azkenik, biktimak eraginkortasunez babesteko, beharrezkoa da Europako Babes Agindu bat onartzeko eta betearazteko prozedura azkarra izatea. Estatu kideek aplikatu beharreko xedapen nazionalek hainbat formula erabiltzen dituzte prozedura berehalakoa eta premiazkoa dela nabarmentzeko, eta, kasu batzuetan, epe zehatzak ere ezartzen dituzte. Halaber, garrantzitsuak dira agintaritza eskudunen eta agintaritza zentralen arteko koordinazioa eta komunikazioa, biktimak babesteko eta Babeserako Europako Arauen eraginkortasuna bermatzeko.

Zuzentarauaren arazoak zeintzuk diren aztertuta, adierazi dezakegu, berriro ere, biktimak bigarren maila batean ezartzen direla, eta nahiz eta egoera zaugarri batean aurkitu, Estatuaren aldetik ez dutela beharrezkoa den babesa jasotzen. Hala ere, Batasunak ez du alde batera uzten genero indarkeriaren fenomeno eta Europako Batzordeak genero indarkeriaren aurka borrokatzeko arau berriak proposatu zituen 2022ko martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean. Zuzentaru berri hori urrats bat haratago doa indarkeriaren aurkako borrokan, indarkeria-delitu praktikoak tipifikatzea aintzat hartuta, hala nola emakumeen genitalen mutilazioa edo ziberjazarpena. Gainera, pribatutasunaren errespetua eta abusuen biktima diren emakumeentzako babesa bezalako gaiak ere jorratzen ditu. (Europako Batzordea, 2022)

#### D. ESPAINIA MAILAN

Espainiak neurri esanguratsuak ezarri ditu genero indarkeriari dagokionez. Konstituzioaren prezeptu orokorretatik hasita lege espezifikoetara, hala nola, "Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Lege Organikoa" eta gaur egun

gatazkan dagoen 10/2022 Lege Organikoa “sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. Hala ere, datuei eta salaketei erreparatzen badiegu, konturatzen gara, nahiz eta esparru juridikoa garatua izan, ez dela nahikoa fenomeno honi aurre egiteko. Botere Judizialaren datuak ikusiz, 2022.urteko hirugarren hiruilekoan, genero indarkeriaren biktimak eta salaketek %10ko gorakada izan zuten.

Gure ordenamendua ulertzeko, komeni da testuingurua pixka bat aztertzea. Espainiako gizartean, 1997.urtean inflexio puntu bat eman zela genero indarkeriari dagokionez, Ana Orantesen heriotzarekin hain zuzen. Anaren senarra izan zenak bizirik erre zuen emakumeak bere egoera publikoki salatu ondoren.

Gertaera honek, agerian utzi zuen botere publikoek genero indarkeriaren inguruan zituzten hutsuneak. Biktima honek, 40 urteetan zehar tratatu txar fisikoak jasan zituen bere senarra izan zenarengatik, eta 60 urterekin bere kasua salatu zuen telebistan. Baina, epailearen erabakiak erasotzailearekin etxea partekatzerara behartu zuen. Arrisku handiko egoera baten aurrean egon arren, Ana, telebista saio batera joatea erabaki zuen bere kasua kontatzea, eta bere bikote ohiaren eskuetan hiltzea zuen beldurra azaldu zuen kameran aurrean. Kasuak gizartean eragina izateko eta tratatu txarren biktimen elkarteei entzuteko behar ziren elementu guztiak zituen. Elkarte horien helburu nagusia ezkontza-tratatu txarrekin behingoz amaitzea izan zen. Horren ondoren, Espainiako Gobernuak, emakumeen indarkeriaren aurkako ekintza plan espezifikoa onartu ditu, bai maila internazionalan aurretik ikusi dugun bezala eta bai estatu mailan..

## 1. Espainiako Konstituzioa

Estatuan, genero-indarkeriak Espainiako arau gorenean, hau da, Konstituzioan, jasotako eskubideen aurka egiten du. Bertan, berdintasunaren printzipioari buruzko hainbat manu daude. Espainiako Konstituzioaren lau hamarkaden ondoren, aurrera egin da emakumeen eta gizonen berdintasuna aitortzeko bidean. Hasteko, lehenengo artikuluan berdintasuna balio gorentzat hartuta irakur daiteke *“Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa”* ( 1.orria). Lehenengo artikulua horretaz gain, legean zehar beste zenbait manutan aurkitu daiteke berdintasunaren printzipioa.

Alde batetik, 9.2 artikuluan: *“Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezten”* (1978 legea, 2.orria) Horrela, bada, ekintza positiboko neurriak, diskriminazioaren aurkako neurriak edo genero ikuspegidun neurri errepresiboak ezar daitezke emakumeak aukeretan desberdinak direnean edo egungo gizarte-errealitatearen eremu jakin batzuetan diskriminatuak direnean.

Beste aldetik, 14.artikulua: *“Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debekua da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo soziala dela eta”* (1978 legea, 3 orria). Legearen aurrean berdinak izateko eskubideak, arrazoi subjektiboengatik, besteak beste sexuarengatik, arau-desberdintasunen debekua eskatzeko emakumeen eskubideei entzungor egin dieten arauak indargabetzea ekarri du. Halaber, eragina izan du gizonak eta emakumeak eskubide-betebeharrean lorpenean parekatu dituzten arauetan.

Birbiktimizazioren gaiari dagokionez eta bereziki biktimizazio judizialaren barnean, Konstituzioaren 24.artikulua aipatu behar da, hau da, babes judizial eraginkorrerako eskubidea, zeina, funtsezko printzipioa da giza eskubideen babesa eta justiziarako sarbidea bermatzeko. Eskubideak berekin dakar ziurtatzea pertsona guztien eskubidea epaiketa justu eta ekitatibo bat izateko, eta prozesu judizialean biktimak errukiz eta enpatiaz tratatuak izateko.

Adierazi dugun bezala, biktimizazio judiziala sistema judizialarekin harremanetan jartzean biktimak izan direnak jasaten duten biktimizazio berria da eta konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubideak urratzen dituela Adibidez, epaile edo abokatu batek galdera desegokiak egiten baditu edo hizkera iraingarri edo larderiatsua erabiltzen badu, hori bidezko epaiketa baterako eskubidea eta tratu anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea urratzen dituelako, biak Espainiako Konstituzioak babestuta.

EKren 24.artikulua Oinarrizko eskubide gisa aldarrikatzen denez, eskubide subjektibo izaera du, arau konstituzional orok berezkoa duen supralealtasunarekin, legeen konstituzionaltasun-kontrolaren bitartez bermatzen dena, eta, era berean, Konstituzio Auzitegian babes helegitea dakarren babes indartua ematen die. Artikulu honen kasuan, jasotzen diren oinarrizko eskubideak prozesu- edo jurisdikzio-izaerako oinarrizko

eskubideak dira, hau da, jurisdikzio-ahalaren erabileraren aurrean eraginkortasuna hedatzen duten oinarrizko eskubideak.

Genero-indarkeriako kasuetan babes judizial eraginkorra bermatzeko, beharrezkoa da auzitegiak eta agintariak beharrezko neurriak hartzea bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko. Babes judizial eragingarria izateko eskubideak barne hartzen ditu entzuna izateko eskubidea, informazioa jasotzeko eskubidea, epaiketa justua izateko eskubidea eta errugabetasun-presuntzioa izateko eskubidea. Horri esker, prozesu judizialak irauten duen bitartean biktimak ez direla birbiktimizatzen eta haien eskubideak errespetatzen eta babesten direla bermatzen da.

## 2. 1/2004KO Lege Organikoa

Lege Organikoa, aitzindari gisa eratzen da, genero-indarkeriaren tratamendua modu integral eta diziplina anitzekoan bideratzen duen Europako lehen legea delako. Aho batez onartu zen Legebiltzarrean, eta horrek agerian utzi zuen arazoak gizartean zuen garrantzia. Hala ere, legegintza-, gizarte- eta politika-lan horrek sortu zuen adostasuna ez zen erabatekoa izan. Ezinezkoa da gizarte patriarkal bat gauek goizera gizarte feminista bihurtzea. Gertatu zena zera izan zen, emakumeen hilketengatik sentsibilizazio handia zuen gizarte baten aurrean, politikoki zuzena zenak ahots kritikoak isilarazi zituela aldi baterako. Paradoxikoki, legearen aurkako ahots kritikoak entzuten hasi zirenean, horien zati handi bat, feminismoaren sektore batzuetatik eta beste gizarte-mugimendu aurrerakoi batzuetatik zetorren, hala nola LGTB mugimendutik.

Hasteko, 1/2004 Lege Organikoan, Legegileak genero indarkeriaren definizio mugatzea erabakitzen du, Nazioarte mailan daudenekin alderatuz, eta aplikazio-eremuaren murrizketa bikoitza egiten du: bai inplikaturako subjektuengatik (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremua), bai barnean hartzen dituen jokabideengatik (eremu horretan gehien egiten diren lau delitu soilik larriagotzen ditu).(Ortubay, 2014)

Legearen definitiotik ondorioztatzen da, biktima soilik emakume bat izan daitekeela, eta erasotzailea aldiz, gizon bat. Beraz, legeak diskriminazio positibo bat egikaritzen du, zuzenbide penalean ohikoa ez dena. Hala, genero-indarkeriagatik lehendik zeuden

zigorrak larriagotu egin ziren, baina soilik erasotzailea gizonzkoa bada eta biktima harreman afektibo-sexuala duen edo izan duen emakumea bada.

Kasu honetan, eztabaida honetan datza: Lege Integralaren arabera, gizon bat emakume bat baino gogorrago zigortzen da itxuraz delitu bera egiteagatik; beraz, zigorraren materialtasuna da eztabaidatzen dena.

Askoren iritziz Espainiako Konstituzioaren 14.artikuluan jasotzen den berdintasunaren eta ez diskriminazioaren funtsezko eskubideen aurka dijoa. Konstituzio Auzitegiak gatazka honi dagokionez doktrina ezarri zuen maiatzaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren 59/2008 Epaiarekin . Konstituzio Auzitegiak ebatzi zuen arazoa, eta berretsi egin zuen eztabaidagai den artikulua konstituzionala zela. Konstituzio-agindu horrek bi eduki bereizi ditu: batetik, berdintasun-printzipioa, eta, bestetik, diskriminazio-debekuak. Hala, hasiera batean, ikus daiteke espainiar guztiek legearen aurrean duten berdintasunari buruzko klausula orokorra, bateragarria dela tratu berezituarekin, betiere desberdintasun horren justifikazioa oinarritua badago eta arrazoizkoa bada, helburu legitimoa lortu nahi bada eta ageriko desproporziorik ez badago.

Bigarren kritika kexu da Legeak ez diola etxeko indarkeria guztiari aurre egiten, eta, horrela, babesik gabeko biktimez gain, indarkeria hori ez dela sartzen bikote homosexualetan gerta daitekeen genero-indarkeriaren kontzeptuan, ezta familiako hainbat kideren aurka (seme-alabak, gurasoak, mendeko pertsonak, etab.) gerta daitekeena ere. Gimeno Reinosok eta Violeta Barrientosek (2009) adierazten dutenez, eta nik ere hauen aldeko iritzia izanik, ezin daiteke onartu genero-indarkeria eta edozein motatako indarkeria nahastea, nahiz eta familia-eremuan gertatu. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, indarkeria hori existitzen ez dela edo indarkeria horren biktimek begirune edo babes bera merezi ez dutenik. Adierazi nahi duena da, emakumeen aurkako indarkeriaren izaera espezifikoa onartzen eta defendatzen dela.

Gizarte-sektore aurrerakoietatik zetozen kritikei dagokienez, egia da gero eta gehiago jasotzen direla sexu bereko bikotekideen tratu txar fisiko edo psikologikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza-eskaerak. Espainiako poliziak aitortu du horrelako salaketak gero eta sarriago iristen zaizkiela eta ez dakitela nola aurre egin. Jakina, sexu bereko pertsonak osatutako familietan indarkeria existitzen dela, emakumeek tratu txarrak emandako gizonak eta gurasoek tratu txarrak emandako haurrak dauden bezala, eta hori

guztia etxeko indarkeria da. Baina ezin daiteke albo batera utzi genero indarkeria gizartean dagoen fenomeno delatua eta indarkeria horrek duen berezitasuna.

Behin hori konponduta, beste arazo bat sortu da gaur egun, legea indarrean ezarri zenean planteatzen ez zena. Gatazka hau, genero indarkeriaren lege organikoa eta aurten onartu den 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, transexualen berdintasun erreal eta eraginkorra eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoari buruzkoaren artean izan da. Laburbilduz, arauak jasotzen duenez, edozein pertsonak, bere borondatea hori izanik, Erregistro Zibilean izena eta sexua aldatzeko aukera izan dezake, hau da, generoaren autodeterminazio askea jasotzen da, lehen eskatzen zen genero-disforiako txostena eta hormona tratamendua daramala edo ez frogatu gabe. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen defentsarako hainbat elkarte eta elkarte feministek ohartarazi dutenez, generoaren autodeterminazio honek tratatu txarren emakumeak diren gizonak erabili dezakete genero indarkeriaren legea aplikagarri ez izateko. Hala ere, legearen iruzur hauek aurkitzeko eta zigortzeko sistemak habian jarri dira eta etorkizunera itxaron beharko da lege honen idazkera egokia den edo aldaketa baten beharra duen ikusteko, indarrean duela gutxi jarri baita. (Montero, 2023)

Baina gatazka hauek guztiak, nahiz eta garrantzia handikoak izan, nire iritziz, albo batera utzi zuten eta dute genero indarkeriaren biktimak, eta legeak berez eman beharko liratekeen babes integrala. Hain zuzen ere, honen adibide da, Encarna Bodelónnek 2012an egin zuen ikerketa sozio-juridikoa, non indarkeria matxistako egoeretan dauden emakumeak elkarrizketatu zituen, eta nabarmendu zuen emakume gehienek ez zutelarik informaziorik beren eskubideei dagokienez, haien kontakizun guztietan sintoma berberak agertzen baitziren: «ez zituzten ezagutzen beren eskubideak prozeduraren hasieran, ez zuten ezagutzen haien ebazpena edo ez zuten erabili telefono bidezko arreta-linea (eta hori egin zutenek esperientzia negatiboa lortu zuten)». Gainera, Nahiz eta emakumea babesteko Lege Organikoa hau egon, epaiketa-prozesuan genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak artatzen eta laguntzen dituzten pertsonak ez dute behar den sentsibilitatearekin edo enpatiarekin egiten, ezta legeak eskatzen dituen estandarrak ere ez dituzte betetzen. Horrek, azkenean, biktimak birbiktimizatzea eragiten du, eta desbiktimizazio eta ahalduntze okerragoa eta motelagoa eragiten du.



Indarkeria matxista epaitzeko epaitegi espezializatuak sortzeak berrikuntza handia ekarri zuen arren, Encarna Bodelónnek ikusi zuen elkarrizketa guztiek sistema judizialaren eraginkortasunik ezaren isla zutela. Emakume guztiak bat zetozen: ordena juridiko-penalak hobera egin behar zuen, askotan oztopo ugari izaten baitituzte salaketa jarri ondoren. Zehazki, ikerketa honetan elkarrizketatutako emakumeek bizkortasun handiagoa eskatzen dute dibortzio-prozesuko izapideetan, «erasotzailearengandik independentea den bizitza» bizitzeko. Beraz, instrukzio-epaileen espezializazioa eta JVMen sorrera gorabehera, biktima gehienek ez dute justiziarik lortzen, ez dituzte babesten eta haien egoera ez da konpontzen.

Hala eta guztiz ere, ez da gutxietsi behar Lege Integralak genero-indarkeriako delitu espezifikoak sortzean izan zuen zeregin garrantzitsua, ezta indarkeria matxistaren aurkako borrokan pauso bat harago eman zuten beste neurri sozial eta juridiko batzuk ere.

Gehiengoaren iritziz, 1/2004 Lege Organikoa ez da eraginkorra, haren erantzun nagusia zigorrak handitzea eta Zigor Kodera jotzea baita, prima ratio gisa, Maqueda Abreuk 2009an adierazi zuen bezala «Oraindik ere proposamen okerrak egiten dira indarkeria matxista desagerrarazteko zigor-bidea indartzearen alde». Agian zigorrak handitzea baina eraginkorragoa izango litzateke justizia-sistemako funtzionarioen jarduerak orientatzera bideratutako eskuliburuak, jarduera-protokoloak eta jardunbide egokien gidak sortzea. Horren adibide dugu Genero-indarkeriaren biktimari deklarazioa hartzeko Jardunbide Egokien Gida, 2018an etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren arloko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko adituen taldeak sortua. Lorenzo Copellok (2010) dioen bezala, zigorrak handitu beharrean, nahikoa baliabide jarri behar da dagoeneko existitzen diren figura penalak praktikan eraginkortasunez jartzeko, Lege Integralak lortu nahi dituen helburuak lortuz biktimen kopurua eta emakumeei benetako babes integrala emateari dagokionez.

### 3. 10/2022 Lege Organikoa

Azkenik aipatu behar da estatu mailan, 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. Helburu nagusia, pertsona guztien askatasun sexuala bermatzea eta indarkeria sexualak prebenitzea izanik “Sexu

askatasunaren babes Integralaren” Legeak “zigorgabetasunik ezaren” eta emakumeen sexu askatasunaren aurkako egoeraren abusua erauztearen eskaerei erantzun nahi die. “La manada” kasuaren lehen epaia eta Me too mugimendua izan ziren legea egitea bultzatu zutenak. Aipatutako epaia, San Fermin jaietan (Iruñea) gertatu zen bost gizonez osatutako talde-bortxaketa izan zen. Biktimak aurka egin ez zuenez, sexu-abusu jarraituagatik bakarrik kondenatu zituzten, eta ez sexu-erasoagatik; hala ere, Auzitegi Gorenaren epaiak aurreko bi epaiak baliogabetu zituen, eta gertakariak sexu-erasotzat jo zituen, larderiazko elementuak aurkitu zituelako, eta zigorra 15 urtera igo zuen. (Auzitegi Gorenearen 344/2019 epaia). Kasu horren ondorioz, Irene Monterok, Berdintasunerako ministroak, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa onartu zuen. Lege Organiko hau ezagunagoa da "bai bakarrik da bai" izenarekin, erderazko “solo si es si”.

Metoo mugimendua aldiz 2017an sortu zen gizarte- eta salaketa-mugimendu bat da, sexu-jazarpenaren eta genero-indarkeriaren kultura ikusarazteko eta amaitzeko helburuarekin. Mugimendua Hollywoodean sortu zen, baina berehala zabaldu zen beste lan-esparru batzuetara mugimendu global bilakatuz.

Legelari adituek aurrerapausotzat jo dute sexu-askatasunaren berme integralaren legeak ekarriko dituen aldaketak, baina Legebiltzarrak onespeneraren definizioa hobetu dezala eskatu zuen, eta ohartarazi zuen emakumeen bigarren mailako biktimizazioa saihesteko orduan, horren arrakasta epaileek, fiskalek eta beste eragile juridiko batzuek araua interpretatzearen eta aplikatzearen mende egongo dela. Horretan, lehen aipatutako, genero-estereotipoak desagerrarazteko prestakuntza funtsezkoa izanik (Molina, 2022)

Ekarri duen aldaketa nagusia Kode Penalaren erreformatzeaz gain (dena agresio sexual bezala tipifikatzean eta abusuen delitua desagerraraztea), adostasuna zentroan ipintzea izan zen. Honako hau birbiktimizazioa saihesteko neurri gisa. Legeak adostasunaren definizioa erreformatzen du, eredu zaharretik non “ez dago adostasunik” agertzen zen (biktimak modu aktiboan frogatu behar zuten ez zuela baimenik eman, adibidez, oihu egin zuela, aurre egin ziola, laguntza eskatu zuela eta abar frogatu behar zuten) eredu berrira igaroz “adostasuna dago” ipiniz hain zuzen (bertan erasotzaileari galdetuko zaio: zer ulertu zuen adostasunez? biktimak esplizituki adierazi zuen sexu-harremanak izan nahi zituela?).

Berrikuntza honek, gatazkak sortu ditu partido politikoaren artean, baina baita ere gizartean. Lege testuaren arabera, adostasuna dagoela ulertuko da, soil-soilik, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, pertsonaren borondatea argi eta garbi adierazten duten egintzen bidez askatasunez adierazi denean. Horrela, baimenik gabeko sexu-jokabideak erasotzat hartuko dira, eta zigor desberdinekin zigortuko dira, kasuaren inguruabarren eta astungarrien arabera. *"Ninguna mujer va a tener que demostrar que hubo violencia o intimidación en una agresión para que sea considerada como agresión. Reconocemos todas las agresiones como violencias machistas (Solo sí es sí": en qué consiste la nueva y polémica ley de ... - BBC)* , adierazi zuen Irene Montero Espainiako Berdintasun ministroak hedabideen aurrean. Izan ere, honen aurretik, emakumeak ezetz esaten ez bazuen, presumitzen zen adostasuna zegoela. Beste hitz batzuetan esanda, helarazitako mezua zen emakumeak sexu-harremanetarako prest daudela, kontrakoa frogatu ezean, hau da, sexu-harremanaren aurka argi eta garbi (erresistentzia aktiboa) daudela frogatu ezean (Espainiako Emakume Epaileen Elkarte,2021). Hala ere, adostasuna horrela ulertzeak, gatazka handiak sortu ditu. Epaile batzuen ustetan errugabetasun-presuntzioaren printzipioa arriskuan ezar dezake, Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikuluan aitortzen dena hain zuen. Adostasuna zer den definitzea – zer ez –, akusatua behartzen duelako frogatzea biktimak "baiezkoa" eman ziola sexu-topaketaren aurretik. Hori da, Alderdi Popularrak (PP), Kongresuan aurka bozkatzearen arrazoia.

Bitartean, Vox eskuin muturreko alderdiak uste du legea "ideologikoa eta sektarioa" dela, eta "salaketa faltsuak erabiltzeko atea irekitzen" duela onurak lortzeko, hala nola agiririk gabeko etorkinen kasuan erregularizazioa lortzeko. Kontuan izan behar da, salaketei dagokionez, 2009tik 2019 bitartean, genero indarkeriako delituengatiko salaketa faltsuak %0,01 izan direla. Hau da, 12.166 salaketatik 1 bakarrik da faltsua.

Beste gatazka bat izan da, Zigor Kodearen aldaketak eragin duela zenbait sexu erasoren delitugileen zigorra jaitea. Adierazi behar da, zigorren beherapenen argazki panoramikoa lausoa dela oraindik. Datuen azterketa 17 autonomia-erkidegoetara zabaltzen bada, zifrak osatu gabe daude. Auzitegien bitartez lortutako informazioarekin, otsailaren 3an 380 kondenatuek beraien kondena murriztuta ikusi zuten, esate baterako, Auzitegi Gorenaren 930/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 30ekoa, bertan, Gorenak zigorrak larriagotzen dizkie bi kondenatuei, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi

Nagusiak aplikatu zuen aringarri analogiko bat ezabatzean, baina Legea indarrean sartu aurretik legokiekena baino zigor txikiagoa ezartzen die. Beraz, kondenak 9 urtera arte handitzen dira, biktimarekiko adin hurbilik ikusten ez delako, baina 10/2022ko Lege Organikoa gabe zigorra 10 urtekoa izango zen. Gainera, 29 espetxetik irten ziren legearen aplikazioaren ondorioz. Azkeneko berriei dagokionez, senatuak, aldeko 231 botorekin, kontrako 19 botorekin eta 4 abstentziorekin, 'bai da bakarrik bai' legearen erreforma onartu du, sexu-eraso delitu bakarrari eusten diona, baina azpimota bat sartu du indarkeria eta larderia erabiliz edo gabe egindako eraso bereizteko

Amaitzeko, legeak bigarren mailako biktimizazioa saihesteko ekarri dituen neurri nabarmenak azpimarratuko ditugu:

Prestakuntzari buruzko III. tituluan, sexu-indarkeriaren biktimekin lan egiten duten profesionalen espezializazioa bermatzeko beharrezko prestakuntza-neurriak ezartzen dira. Profesionalak gaitzeko beharra aitortzen da, biktimei tratu sentikorra, enpatikoa eta errespetuzkoa emateko, eta bigarren mailako birbiktimizazioa saihesteko. Gaikuntza hori biktimak artatzeko eta babesteko prozesuan inplikaturik egon daitezkeen arlo guztietara zabaltzen da, polizia, auzitegiak, gizarte- eta osasun-zerbitzuak barne.

IV. tituluan, laguntza integral espezializatua eta irisgarria izateko eskubideari buruzkoan, sexu-indarkeriaren biktimentzako arreta osoa bermatzeko neurriak ezartzen dira. Aitortzen da biktimek berehalako eta epe luzeko arreta medikoa eta psikologikoa behar dutela, bai eta premia ekonomiko, laboral, etxebizitza eta sozialei arreta, aurretiazko aholkularitza juridikoa eta doako laguntza juridikoa ere indarkeriaren ondoriozko prozesuetan. Halaber, eskubideen erreklamazioen jarraipena, itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak eta laguntza espezializatua bermatzen dira desgaitasuna duten emakumeen eta haurren kasuan. Arreta integral hori bermatzean, bigarren mailako birbiktimizaziorako aukera murrizten da.

Azkenik, VI. titulua justizia eskuratu eta lortzeari buruzkoa da. Titulu honek bi kapitulu ditu: I. kapitulua eragile juridikoen prestakuntzan eta espezializazioan oinarritzen da, eta II. kapitulua prozesu judizialean biktimari ematen zaion arretan.

Lehenengo kapituluari dagokionez, sexu- eta genero-indarkerian espezializatutako prestakuntza baten beharra ezartzen da prozesu judizialean esku hartzen duten eragile juridiko guztientzat. Prestakuntza horrek hainbat alderdi jaso behar ditu, hala nola genero-ikuspegia, sexu- eta genero-indarkeriak biktimari eragiten dizkion ondorioak, eta gai horretan garrantzitsuak diren arau- eta jurisprudentzia-tresnak.

Bigarren kapituluan, prozesu judizialean biktimari arreta integrala eta espezializatua emateko neurriak ezartzen dira. Ezarritako neurrien artean honako hauek daude:

- Epaitegietan sexu- eta genero-indarkerian espezializatutako unitateak sortzea, biktimei arreta espezifiko eta pertsonalizatua emango zaiela bermatzeko.
- Prozesu judizial osoan zehar biktimarentzat sexu- eta genero-indarkerian espezializatutako abokatu bat egongo dela bermatzea.
- Prozesu judizialak dirauen bitartean biktimaren intimitatea eta bizitza pribatua babesteko direla bermatzea, datu pertsonalak isilpean gorde, gorde eta babesteko neurriak hartuz.

Eragile juridikoen prestakuntza espezializatuaren eta biktimari prozesu judizialean arreta integrala eta espezializatua ematearen bidez, uneoro biktimen eskubideen babesa eta errespetua bermatzea eta, horrela, bigarren mailako biktimizazioa saihestea bilatzen da.

#### E. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MAILAN: EA Eren ADIBIDEA

Dakigunez, Espainia oso deszentralizatuta dagoen Estatu da. Giza eskubideen eta genero-indarkeriaren arloko politika publikoen zeharkakotasuna da Espainiako Estatu eskumenen banaketaren ezaugarria. Horren arabera Autonomia Erkidegoei, materia honetan, honako konpetentzia hauek eskuordetzen zaizkio: (Murillo de la Vega eta Palomo Diaz, 2019)

- Lurraldeko arau eta politika publikoak.
- Sentsibilizatzeko, antzemateko eta prebenitzeko neurriak eta tresnak.
- Emakumeei laguntza integrala emateko asistentzia-zerbitzuak – anbulatorioak eta egoitza-zerbitzuak – eta baliabideak arautzea.

- Eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoen mendeko delituaren biktimei laguntzeko bulegoak.
- Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak (UVFI), transferitutako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoen mendekoak.
- Polizia Autonomikoa: Ertzaintza (Euskal Autonomia Erkidegoa), Mossos d'Escuadra (Katalunia) eta Nafarroako Foruzaingoa (Nafarroa)

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legea, otsailak 18ko legea aurkitzen dugu.

Lehenik eta behin, emakumeen aurkako indarkeriaren definizio labur eta zabal bat ezartzen du: *Sexuan oinarritutako edozein ekintza bortitz, emakumearen sufrimendua edo kalte fisiko, sexual edo psikologikoa suertatzen duena, ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapena edo bizitza publikoan edo pribatuan gertatzen den askatasun-gabetze arbitrarioa barne.*

Ondoren, kapitulu horretan, bi atal garatzen ditu, eta bertan zehazten du EAEko Administrazioak nola esku hartu behar duen indarkeriaren fenomenoaren eteteko. Lehenengoa, ikerketa, sentsibilizazioari, prebentzioari eta prestakuntzari buruzkoa; eta, bigarrena, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak babesteari buruzkoa, emakume horien beharrei erantzuteko garatu behar diren zenbait neurri zerrendatuz: poliziaren babes (54.art), aholkularitza juridikoa (55.art), laguntza psikologikoa (56.art), harrera-pisuak eta larrialdi zerbitzuak (57.art), prestazio ekonomikoak (58.art), etxebizitza (59.art), laneratzea (60.art), hezkuntza (61.art), erakundeen arteko koordinazioa eta jazarpen sexista desagertzeko neurriak (62.art)

Aipatutako legeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoak gizartean eragin handiena izan duen jardueretako bat «Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez» goiburua duen erakunde arteko sentsibilizazio-kanpaina izan da. Kanpaina hori Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta egin zen. Bestalde, Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoen Jasaten dituzten Emakumeei Harrera Hobe egiteko Erakundeen arteko Akordioaren esparruan, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasuna bermatzeko Koordinazio Protokolo bat onartu zuen Gizarte

Zerbitzuen eremuan, eta Etxeko Tratu Txarren Biktimentzako Harrera eta Etxebizitza Baliabideak Hobetzeko Programa bat. (Kahale Carrillo, 2010)

Azkenik, nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Etxebizitza Babestuaren Arloko Jarduera Plana onartu zuela.

## V. KANPO LANA : GENERO INDARKERIAREN OFIZIOZKO ABOKATUARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

Azken atal hau egiteko, A.M-ren abokatuaren lankidetzan izan dugu. 2005. urteaz geroztik, genero-indarkeriaren ofiziozko txandan parte hartu du, eta izena eman zuen lehenetako bat izan zen. Esperientzia handia izan du genero-indarkeriaren biktimei arreta eta defentsa ematen, eta hainbat kasu eta egoerari aurre egin behar die eguneroko lanean. Bere esperientziari esker, gure ikerketa aberastu ahal izan dugu, eta genero-indarkeria eta birbiktimizazio judizialaren gaian sakondu. Berarekin hitzaldia izanda zenbait ondorio ezberdin atera ditugu.

Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldarrikatu ondoren Genero-indarkeriaren Txanda 2005ean ezarri zen. Gai horrekin sentsibilizatutako abokatu talde bat izan zen izena ematen lehena, baina zailtasun handiak izan zituzten. Abokatu horien arduraren probintzia osoa betetzea, eta ezinezkoa zen abokatu eta errefortzu bakar batentzat eskari guztiei erantzutea.

Pertsonal gutxi izateaz gain, formakuntza falta nabaria zen inplikaturako operadore guztien artean, abokatuak, justiziako funtzionarioak, epaileak eta fiskalak barne, eta horrek guztiak, aurreko ataletan aztertu dugun bezala, birbiktimizazio egoera larriak ekartzen zituen. A.Mk adibide bezala jarri zuen bizitako egoera pertsonal bat non Tolosan biktima bat atenditzen zegoela, Irunera "berekala" joateko deitu zioten, egoera jasanezina zela adieraziz. Hala ere, baieztatu zuen, abokaturik ez zela txandatik irten.

2005 urtetatik gaur egunera, egoera hobetu dela esan daiteke. Pertsonalari dagokionez, txandetan dagoen pertsona kopurua aldatu da, barruti judizialetan, adibidez, Eibar-Bergara-Azpeitian, egunero bi abokatu titular eta abokatu indargarri bat daude. Eta formakuntzari dagokionez, abokatuak urtero jasotzen dituzte prestakuntzak, bai

aldaketa juridikoei dagokienez, bai alderdi psikologikoei dagokienez eta hitzaldi horiek magistratuek, psikologoek, ertzaintzak eta medikuek ematen dituzte.

Gaur egun beraz, hobekuntzak nabariak dira, aurreko urteekin alderatuz. Baina epaitegien formakuntzan eta Genero indarkeriaren dimentsioa eta konplexutasuna behar bezala ezagutzeari dagokionez bidea geratzen da. Askoz informazio eta bitarteko gehiago daude gaitz honi buruzko ezagutza garatzen joateko, baina, hala ere, biktimak salatzen duenetik esku hartzen duten operadore guztien sentikortasunaren eta gogoaren mende daude. Eta prozesu osoan, salaketatik epaia eman arte, gauzak asko hobetu daitezke oraindik ere, ikusi dugun bezala.

Elkarrizketatuari egindako beste galdera bat salaketei buruzkoa izan zen, izan ere hildako emakumeen erdiak baino gutxiagok salatu zuten erasotzailea 2022an, Berdintasun Ministerioaren datuen arabera. Abokatuak adierazi zuen, honako hau ez dagoela soilik faktore bakar baten mende, baizik eta salaketa ez jartzeko erabakia hartzean eragina duten hainbat arrazoi existitzen direla.

Bere esperientzia kontuan izanda, arrazoi nagusienetakoa, biktimak tratu txarrak ematen dituenarekiko duen mendekotasun emozionala da. Askotan, esaten da, mendekotasun ekonomikoa dela ez salatzearen erabaki nagusia, baina bere ustez emozionala, handiagoa ez bada, ekonomikoa bezalakoa da.

Izan zuen kasurik nabarmenena izan zen duela urtebete artatu zuen emakume batena. Ertzain etxera joan zenean, aurpegia ukabilkadaz ubeldua eta gorputzeko gainerako atal guztiak hematoma ugariarekin zuen emakumea aurkitu zuen, bere bikotekideak eraginda. Berarekin hitz egin ondoren, emakumeak salaketa ezartzea erabaki zuela adierazi zuen. Bere ondoan egon zen 544.3 artikuluko agerraldiaren unean. Horren ondorioz, autoa eman zen, eta, bertan, urruntze-agindua eman zitzaion. Egun batzuk igaro ondoren, urruntzeko agindua kentzeko eskatu zion biktimak. Akusazio partikular gisa erretiratu behar izan zuen. Atzera ez egite hauen aurrean bere ustetan, psikologoek esku-hartze azkarragoa beharko litzateke.

Ez salatzeko, beste arrazoietakoa bat, jarraitu beharreko prozedura luze eta astuna dela adierazi zuen. Lehenik, ertzaintzan, itxaronaldia, salaketa, biktimaren protokoloa. Gero, hurrengo egunean, Epaitegian egon beharreko denbora amaigabea egiten da. Gehienetan



9: 30etarako edo 10: 00etarako deitzen diete ofiziozko abokatuei eta 14: 30ak edo 15: 00ak aldera ateratzen dira. Horren eraginez, biktima asko, epaitegian egonda, behera etortzen dira. Honen aurrean, genero Indarkeriaren Epaitegi bat jarri beharko litzateke, gai horiek soilik jorratzen dituenak.

Azkeneko arrazoia justiziarekiko mesfidantza izan daitekeela adierazi zuen. Biktimek uste dute beraiek konpondu dezaketela gaia. Arazoak salatuz, areagotu egingo direla: bakardadea, arazo ekonomikoak, errudun sentitzea... Gaitz hori konpontzea esku hartzen duten profesional guztien zeregina da eta administrazioak baliabide gehiago eman beharko lituzke oztopo horiek konponduak izan daitezen.

Azkenik, gure galdera bideratu zen, Berdintasun Ministerioak argitaratutako Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko azken Makroinkestaren datuei buruz, zeinak agerian utzi zuen sexu-indarkeria jasan zutenen % 40,3k ez zutela lotsagatik salatu, eta % 8,4k ere ez zuela salatu, behar bezain garrantzitsua ez zela sentitu zuelako.

A.Mren ustez, funtsean ez da salaketarik jartzen, biktimek lotsa, erruduntasuna eta autoestimu falta sentitzen dutelako. Gainera, ez dira sentitzen peritu judicial luze eta nekagarri bati ekiteko indarrarekin. Horrez gain, eta aurretik adierazi zuen bezala, sistemak akatsak ditu eta biktimak berriz biktimizatzen dira, baliabide polizial eta judicialen gabezia jasan behar izaten dutelako, denbora luzez itxaron, batzuetan sentsibilitate gabeko pertsonalarekin harremanetan egon, eta orokorrean ez dago biktimen beharrei erantzungo dien diziplina anitzeko talde nahikorik.

Bere esperientziaren arabera, ,sexu-erasoren biktimekin lanean aritu denean gauza bera gertatzen da. Salaketa jarrita ere, hainbat fase gertatzen dira: lotsa, larritasuna, beldurra, pentsatzea egin behar ez lukeen zerbait egin dutela eta, batez ere, sinetsiko dieten zalantza izatea.

Biktimak psikologikoki suntsituta, zikin eta autoestimu gutxirekin sentitzen dira, baina, batez ere, kezka nagusia beraien sinesmentasunari buruzko da. Kasu gehienetan, sexu-erasoek frogak dituzte, hala nola biologikoak eta lekukoenak zeinak gertakariak argitzen laguntzen duten. Baina arazoa familia baten barruan gertatzen diren erasoetan da batez ere, hau da, barruko ateetan, non gehienetan soilik, bata eta bestearen kontrako

hitza bakarrik duzun. Honen aurrean, aurretik aztertu dugu 10/2022ko Lege Organikoa, hobekuntza bat izan daiteke biktimarentzat, adostasuna frogatzeari dagionez. Hala ere, ezin daiteke ahaztu legea gauza bat dela, eta gero, beste bat, prozesuan esku hartzen duten operadore juridikoen diskrezionalitatea hura aplikatzerako orduan.

Abokatuak, izan zuen azken kasuan, -osaba batek iloba adingabe bati egindako sexu-erasoa zen eta, biktimaren kezka nagusia berari sinestea da. Epaiketaren data jarrita, ikustaldia egin aurretik, erasotzaileak egozten zitzaizkion gertakari guztiak aitortu zituen. Abokatuak, biktimari kontatu zionean, tratamendu psikologiko bat bezala izan zen adingabearentzat. Lasai geratu zen, eta argia pixka bat ikusi ahal izan zuen sartuta zegoen putzutik. Baina kontuan izan behar da, amaierara iristeko, etapa batzuk igarotzen direla, eta biktimen kezka askotan izaten da ea salaketa jartzea egokia izan den.

Horregatik, bere ustez, biktimaren egoera psikologikoak, neurri batean epaituta sentitzea, jendearen azterketaren mende egoteak, lotsatuta egoteak eta zain duten ibilbide judizial luzeak biktimak salatzeke orduan uzkuetzea eragin dezakete.

## VI. ONDORIOAK

Biktimak figura juridiko gisa izan duen ibilbidea aztertu ondoren adierazi dezakegu, gaur egun errekonozimendu gehiago duen arren lege-sistema batez ere delitugilearengan bideratuta dagoela, biktima bigarren maila batean utziz. Asko dira birgizarteratzeari buruz idazten dutenak, kartzela neurriak egokiak ote diren edo espetxearen denbora aproposari buruz, baina biktima batek prozesu juridikoaren ondorioz igaro behar dituen gorabeherak ez dira orokorrean kontuan hartzen, alde batera uzten dira behin biktimak salaketa ezartzen duenean. Biktima ezin daiteke sistematik kanpo utzi eta legeak egiten eta berritzen joan behar dira haren eskubideak eta interesak babesteko, prozesuan parte hartuko duela bermatzeko eta laguntza egokia ematen zaiola ziurtatzeko.

Hasieran adierazi genuen bezala, genero-indarkeria ez da erasotzailearen salaketarekin amaitzen. Era berean, delitu-egitatearen beraren ondoriozko biktimizazioaren ondoren, «bigarren biktimizazioko» prozesu berri hasten da gehienetan, eta hau, abokatuarekin elkarriketa izan ondoren, konturatu gara ez dela egoera isolatu bat, baizik eta sistematikoki ematen da, gainera lanena zehar ere, genero indarkeriaren biktimak egin

aldizkari zientifiko baterako egin zuen elkarrizketa ikusi dugu, eta argi geratu da, ez dela soilik kasu partikular bat, baizik eta sistemak duen akatsa orokor bat dela.

Biktimen parte-hartzearekin egindako bigarren mailako biktimizazioari eta biktimizazio judizialari buruzko azterlanek agerian uzten dute bigarren biktimizazio baten pertzepzioaren eta zerbitzu judizialaren balorazio negatiboaren arteko lotura. Egoera horrek areagotu egiten du genero-indarkeriaren biktimen kalteberatasuna; izan ere, mesfidantza eta segurtasunik eza sortzen ditu haiek babestu behar dituen pertsonarekiko harremanean, baina babes hori ordeztu, biktimak dagoeneko duen pairamena larriagotzen du. Sistemak bermatu behar du genero-indarkeriaren biktima bigarren mailako biktimizaziotik eta biktimizazio judizialetik babestuko dela. Informazio desegokiak edo biktimak ez ulertzeak, eragile juridikoek lanbidean behar bezala ez jarduteak, batez ere genero-ikuspegiak ez dutelako, bigarren mailako biktimizazioa edo biktimizazio judiziala agertzea eta/edo areagotzea dakarte.

Adierazi beharra dago Sistema juridiko-penalak, operadore juridikoek eta, azken batean, arduradun publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela, arestian aipatutako inguruabarrak zuzentzeko. Eta ez soilik, bigarren mailako biktimizazioaren eta biktimizazio judizialaren aurkako prebentzio-protokolo edo -arau berriekin (10/2022 LO adibidez), baizik eta biktimizazio horiei mesede egiten dieten kausen azterketan sakonduz; nolana ere, biktimen beharrezko parte-hartzearekin eta zigor-arloko prozesuan duten tratamenduaren errealitate praktikoa biktimizazio-modu horien aurkako prebentzio-premietara egokitzen dela bermatuz.

Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeak beraz, hobekuntzak ekarri dituzte emakumeen eskubideetarako eta justiziaren aurrean babesteko. Hala ere, asko dago egiteko, oraindik babesgabetasun eta birbiktimizazio kasuak ematen baitira eta hori argi geratu zaiugu legeen azterketarekin eta egiaztu dugu benetan husuneak daudela abokatuarekin elkarrizketa izan ondoren. Birbiktimizazioa zerk sortzen duen identifikatzea ezinbestekoa da aurrera egiteko, eta lanean zehar arazo hauek izan dira identifikatutako batzuk: dauden legeak behar bezala ez ezartzeagatik, lege horiek aplikatzeko ardura duten profesionalen gaitasunik eta baliabide ezagatik, eta gizartean, oro har, genero-estereotipoek eta -aurreiritziak irauteagatik.

Azkenik, aipamen berezia egin nahiko nuke, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikori. Nire ustez, adostasunaren kontzeptua aldatzea bibirbiktimizazioa ekiditeko tresna esanguratsua da. Orain arte pisu handia ezarri da emakumeengan frogari dagokionez, horretarako galdera desegokiak eginez eta prozesu nekagarriak pasatzera behartuz salaketarekin aurrera jarraitu nahi bazuten. Gainera, positiboa da ere prozesu judizialean biktimaren intimitatea eta duintasuna babesteko neurriak ezartzen dituelako eta lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza espezializatua bultzatzen duelako. Hala ere, legeak hutsuneak izan ditu praktikan aplikatzean eta aipatu dugunez, birbiktimizazioa jasatea edo ez, askotan epaileen eta orokorrean operadore juridikoen mende dagoela eta beraz, nahiz eta legeak berritu eta emakumeen aldeko neurriak ezarri, nire ustetan, ez da nahikoa.

Garrantzitsua da lanean jarraitzea emakumeen babesa hobetzeko eta genero-indarkeriako kasuetan justiziarako sarbidea bermatzeko. Horrek esan nahi du, legeak eta horien aplikazioa hobetzeaz gain, genero-indarkeriaren azpian dauden kausei heldu behar zaiela, eta genero-berdintasunaren eta errespetu kultura sustatu behar dela. Agian irteenbidetako bat, biktimari prozesuan papel aktiboago bat ematea da. Rosichen eta Micciolaren bat eginez (2021), zalantzan jarri behar da biktimak berme-prozesu penalaren barruan duen funtzioa, hain zuzen hau rol pasibo batean kokatzen delako eta froga funtzioa besterik izaten ez duelako zeinak epaileak epaia eman ahal izateko erabiltzen den. Horregatik, rol aktiboa ematen zaio biktimari, birbiktimizazioa saihestuz. Gainera, funtsezkoa da genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen esperientziei entzutea eta haietatik ikastea, eta bigarren mailako birbiktimizazioa gainditzeko beharrezko laguntza ematen zaiela ziurtatzea. Horrela bakarrik egin ahal izango da aurrera benetan bidezkoa eta berdintasunezkoa den gizarte baterantz.

## VII. BIBLIOGRAFIA

### DOKTRINA:

- Aranda Maiz, A. eta Lekanda Altzibar, A.(2022) *Revictimización de las mujeres víctimas de violencia de género en el sistema jurídico penal: Análisis de caso*. Revista Científica Warmi.

- Bodelón E. (2012) . *Violencia de género y las respuestas de los sistemas penales*. Buenos Aires, Ediciones Didot.
- De Arce García, Paula. (2020). *Víctimas, Terrorismo y derecho penal: La revictimización sucesiva*. Valladolideko unibertsitatea. Zuzenbide fakultatea.
- Demetrio Crespo, Eduardo. (2016). *Curso de Derecho Penal: parte general (3a edición, adaptada a la reforma de 2015 del Código Penal)*. Dialnet.
- Etxeberria Guridi, J. F. (2022) “*Protagonismo probatorio de la víctima en el proceso penal: inconveniente y ¿posibles soluciones? (al hilo del convenio de Estambul)*” *Rev. Boliv. de Derecho* N° 33. .
- García-Pablos, A. (2016). *Criminología. Una introducción a sus fundamentos teóricos* (8ª ed.). Tirant Lo Blanch
- Gimeno Reinoso, B. eta Barrientos Silva, V. (2009). *Violencia de género versus violencia doméstica: La importancia de la especificidad*. *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer* v.14 n.32
- Gomez Colomer, Juan Luis (2015). *Estatuto jurídico de la víctima del delito La posición jurídica de la víctima del delito ante la Justicia Penal. Un análisis basado en el Derecho comparado y en las grandes reformas que se avecinan*. Pamplona: Aranzadi
- Kahale Carrillo (2010), *La violencia de género en el contenido de los estatutos de autonomía*. Dykinson
- Lorenzo Copello, P. (2010) “*La violencia de género en la ley: Reflexiones sobre veinte años de experiencia en España*” Dykinson
- Lucia Plumed, S. (2020). *El impacto de la ley de violencia de género en la sociedad española*. <http://hdl.handle.net/10251/152054>
- Martín Sánchez, M.(2015). *El género en la “violencia afectiva”: clave para un examen de constitucionalidad*. Santiago-chile: Scielo
- Maqueda Abreu, M.L. (2010) *1989 – 2009: Veinte años de ‘desencuentros’ entre la Ley penal y la realidad de la violencia en la pareja*. Dialnet
- Montero, Irene eta Takanashi, Sindy (2023). Versículo 13: Con Irene Montero. (*Episodio de pódcast de audio*). Queridas hermanas, podimo.
- Morillas Fernandez, D., Patro Hernandez, R.M. eta Aguilar Caceres, M. (2014) *Victimología. Un estudio sobre la víctima y los procesos de victimización*. Dykinson

- Muñoz Conde, F. eta García Arán, M; (1996) *vid Derecho Penal. Parte general 11ª Edición, revisada y puesta al día*. Pastora García Álvarez en kolaborazioarekin (2022). Valencia. Tirant lo blanch
- Ojeda, S. (2015). *Escala Samanto: Un Instrumento para Medir la Revictimización*. Revista Skopein
- Orts Berenguer, E.; González Cussac, J.L. (2016) *Compendio de Derecho Penal: Parte General*. Tirant lo Blanch
- Ortubay Fuentes, M. (2014) *Ley integral contra la violencia de género: Luces y sombras*. <http://www.pensamientocritico.org/mirort0315.pdf>
- Palomo Diaz, R eta Murillo de la vega soledad (2019) *Guia del sistema de acción y coordinación en casos de violencia de género en españa* <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/guia/docs/GUIADEACIONESCASTELLANO.pdf>
- Pérez Camarero, Santiago (2019). *La violencia de género en los jóvenes Una visión general de la violencia de género aplicada a los jóvenes en España* . Instituto Max Webwer
- Poggi Francesca (2019). *Sobre el concepto de violencia de género y su relevancia para el derecho*. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
- Rodríguez González, Victor (2021). *Vulnerabilidad de las víctimas desde la perspectiva de género. Una visión criminológica*. Madrid: Dykinson
- Rosichen Sole, L. eta Micciola, E. (2021) *Violencia de género: herramientas para un modelo de intervención*. Editorial Síntesis.
- Ruiz-Rico, C. (2014). *Aproximación a los nuevos retos jurídicos de la violencia de género: la responsabilidad pública. Derecho y cambio social*. Dialnet
- Sanabria, M.clavijo, E.F. y Silva, J. (2015). *Control judicial de las actividades de inteligencia del estado en el sistema penal colombiano* (tesis de maestría). Bogotá. Universidad Libre de Colombia,.
- Tamarit Sumalla, J.M. (2006). *La Victimología: cuestiones conceptuales y metodológicas*. Dialnet.

#### JURISPRUDENTZIA:

- Auzitegi Gorenearen 344/2019 Epaia, zigor-arloko Sala, 1. sekzioa, 2019ko uztailaren 4koa

- Auzitegi Gorenaren 930/2022 Epaia, zirgor arloko sala, 2022ko azaroaren 30ekoa.
- Konstituzio Auziteguaren 87/2020 Epaia, 2020ko uztailaren 20ekoa
- Konstituzio Auzitegiaren 59/2008 Epaia, 2008ko maiatzaren 14ekoa.

#### LEGEA:

- Espainiako Konstituzioa
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 50/1981 Legea, abenduaren 30ekoa, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duena.
- Berreste-agiria, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeke indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenarena, Istanbulen egina 2011ko maiatzaren 11n.
- 2011/99/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena Eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, babesteko Europako aginduari buruzkoa.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala